

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2020ko uztaila / 307. zenbakia

www.oñati.eus



LURRERATZE EREMUA

Gipuzkoako Aire Kirol Federazioak eta Zelaibarren baserriko jabeek sinatu duten hitzarmenari esker, parapentezaleek lurreratzeko tokia izango dute Berezaon



'HERRITIK ZUZTARRERA, ZUZTARRETIK HERRIRA'

herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektorearen aldeko kanpaina antolatu du udalak bi helbururekin: sektorean diharduten profesionali aitortza egitea, herriari ematen dioten guztiagatik; eta herritarrek sentsibilizatzea Oñatin kontsumitzeak duen garrantziaz.

► Udaleko sozioekonomia saileko eta TXANDAKo kideak kanpainaren aurkezpenean

Aitortza eta sentsibilizazioa

Covid-19aren ondorioz pertsiana behin behinean jaitsi behar izan dute herriko negozio askok, eta orduan ikusi dugu, inoiz baino argiago, zein beharrezkoak diren herriarentzat eta zenbat ematen dioten herriari: bizitza, argitasuna, giroa, segurtasuna, konfiantza, aberastasuna, kalitatezko enplegua, hurreko hartu-emanana...

Horregatik, udalak hainbat neurri eta baliabide ipini ditu Covid-ak eragindako kalteak leuntzen laguntzeko: aurrena, aholkularitza zerbitzua jarri zuen martxan

erakunde ezberdinetako dirulaguntza lerroen inguruko informazioa emateko; gero, kontsumoa sustatzeko 40.000 euro bideratu zituen *Kuttuna* ekimenera, eta, orain, 342.000 euroko dirulaguntza lerroa sortu du jarduera etenda eduki behar izan duten zerbitzu sektoreko autonomoei eta mikroenpresei laguntzeko.

Eta hurrengo hilabeteetara begira ere, kontsumoa sustatzera zuzendutako ekimen berriak (erosketa bonuak...) lantzen diharduela aurreratu du udalak.

Baina hori guztiori ez da nahikoa

izango. Herritar guztien laguntza ere beharrezkoa izango da egoerari buelta eman eta saltoki, ostatu eta zerbitzu sektore sendo eta bizia eduki nahi badugu herrian. Eta horixe da, hain zuzen ere, udalak abian jarri duen kanpainaren helburuetako bat; alegia, herritarrek sentsibilizatzea eta Oñatin kontsumitzera animatzea. Hori, alde batetik, eta, bestetik, aitortza egitea herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu sektoreko profesionali, herriari egiten dioten ekarpen baliotsuagatik.

Herritar guztien esku dago geuria zainketia

Erosi dezagun geurean, erabil ditzagun geureak!

HERRITIK ZUZTARRERA, ZUZTARRETIK HERRIRA
Careermentaltasun, erakortasun eta konfiantza

ONATI
dabilen herria

merkatarien ikuspuntuak



MIREN TATIEGI
AMETS-BEREZAO

Alarma egoera indarrean egon den garaian oinarritzko zerbitzua (zulatuak, bateria...) bakarrik eskaini dugu, eta maitatzean hasi ginen langileak ABEE/ERTE egoeratik ateratzen, era mailakatuan. Lagungarriak izan dira Jaur-laritzaren PAVEA eta Madrilgo gobernuaren MOVES planak mugimendua ekarri baitute auto berrien salmentara. Bigarren eskuko kotxeena ere hasi da indarra hartzen. Udalaren laguntza ere (*Kuttuna...*) ondo ikusi dut. Herrian kontsumitzeko ohitura errotzeko ekimen ona dela uste dut.



ASIER GOROSTIAGA
URRUTIA GIZONAK

Denek bezala itxi egin behar izan dugu denda, baina gure esku ez zegoenez, ahalik eta lasaien eramaten saiatu naiz. Langileak ABEE/ERTEan egon dira eta nik autonomoen laguntza jaso dut, baina batez ere *Kuttuna* ekimena azpimarratuko nuke. Txalotzekoa da Magnet enpresak izandako ekimena, eta, gero, udalaren laguntzarekin, oso ondo funtzionatu du. Jendeak erosi egin du eta eskertzekoa da. Batek baino gehiagok, agian, birplanteatu egin du kontsumitzeko ohitura, eta olatu hori aprobetxatu egin behar dugu.



CAROL PERALTA
DISTIRA ESTETIKA

Gure arloan goi-denboraldia hasten da udaberrian, eta, beraz, kaltea handia izan da, baina autonomoentzako CATA prestazioa jaso ahal izan dut, eta lokalaren jabeak ez dit alokairua kobratu, eta horrek arindu egin du egoera. Gainera, alde ona ere ikusi behar da eta, egia esan, haurrekin egoteko aprobetxatu dut konfinamendua, eta oso ondo eraman dut. Lanerako itzulera estres handikoa izan da, segurtasun neurriak direla-eta, baina lan asko egin dugu. Gehiago kezkatzen nau irailetik aurrerako egoerak.

Oraingoz 65 dirulaguntza eskaera jaso dira

Ekaineko zenbakian aurreratatu genuen moduan, 342.000 euroko laguntza lerroa onartu du udalak, Covid-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz jarduera etenda eduki behar izan duten hirugarren sektoreko autonomo eta enpresa txikiei (-10 langile) laguntzeko eta enpleguari eusteko helburuarekin.

Establezimendua itxita egon den hilabete bakoitzeko 300 euroko laguntza finkoa emango zaie, eta 60€-35€ arteko laguntza langile bakoitzeko eta hileko. Gainera, argindarra, ura eta hondakin bilketa gastuei aurre egiteko laguntzak ere jasoko dituzte. Guztira, 2.000 euro jaso ahal izango ditu, gehienez, negozio bakoitzak.

ALDAKETAK ARAUDIAN

Hasieran, laguntzak jaso ahal izateko baldintzen artean egoitza fiskala Oñatin edukitzea onartu zen, baina betebeharrak hori kentzea erabaki zuen udalbatzak ekaineko osoko bilkuran.

Bestalde, Jarduera Ekonomikoen Gaietako Zergaren epigrafe batean alta emanda egoteko baldintza mantendu egiten da, baina jarduera hori enpresaren jarduera nagusia den kontuan hartu barik.

Dirulaguntzen zenbatekoa kalkulatzeko epea alarma egoeraren amaierako datara mugatzea erabaki da eta justifikaziorako aurkeztu beharreko dokumentazioa arindu.

Momentuz, 62 eskari jaso dira. Gogoratu, uztailearen 30a dela eskaerak aurkezteko azken eguna, udal-txean aurrez aurre, posta arruntez edo internetez.



BELÉN MARTÍN
ONGI HOTELA/TABERNA

Handia izan da kaltea, jakina, baina ABEE/ERTE egoeran egon gara, eta ahalik eta lasaien eramaten saiatu gara Beldur handiagoa ematen dit hemendik aurrerakoak. Ikusi egin behar zer gertatzen den udazkenean. Enpresa askoren egoera ez da ona, eta horren ondorioak igarriko ditugu, seguru. Tabernan ari gara lanean afora neurriak zainduta, baina hotel mailan ez dut uste burua altxatuko dugunik datorren urtera arte. Ari dira turismoa sustatzen baina ikusi egin behar zenbat jende datorren.




ISABEL NEGREIRA
LUAR JANTZIAK

Bi hilabetez denda itxita eduki behar izan dugu, eta udaberri-udako kanpainaren hasieran izan denez, kalte handia eragin digu, mahuka luzeko arropa ia gehienak saldu barik geratu direlako. Korpus jaia ez ospatzea ere igarri dugu. Udalaren laguntzak ondo ikusten ditut, baina, batez ere, *Kuttuna* bezalako ekimenak iruditzen zaizkit onak, bertako kontsumoa sustatzen dutelako. Urtean zehar gehiagotan egin behar harko liriateke. Inbertsio handiegirik gabe, herri osoarentzat oso ona dela uste dut.



MARI JOSE MENDIZABAL
MENDIZABAL KIROLAK

Denda itxi egin behar izan dugu eta kalte handia egin digu, udaberriko denboraldia galdu dugulako. Egia da, *Kuttuna* ekimena oso lagungarria izan dela. Jendeak asko lagundu du eta, aukeran, nik uste dut hobe dela udalak dirua gastatzea bonotan, laguntza zuzenetan baino, jendea herrian kontsumitzen ohitzen baita. Sentsibilizazio kanpainak ondo daude, baina eragina oso mugatua dela uste dut. Zaila da entzun nahi ez duenarengana iristea. Interneteko salmentei aurre egin behar zaie zerga bidez...



Oñatik kondepeko izateari utzi ziola 175 urte igaro badira ere, Oñatiko Kondetza tituluak bizirik eta indarrean dirau. Gaur egun Camilo Travesedo y Juliá (Madril, 1976), da tituluaren jabea. Sei anaietan bigarrena da Travesedo jauna, eta bere aita Juan Travesedo y Colón de Carvajal, Naxerako dukearen eskutik jaso zuen Oñatiko Konde titulua 2017ko maiatzaren 8an. 1915etik hona Oñatiko Kondetza titulua jabetzan duen Travesedo leinuko bosgarren belaunaldiko kidea da Camilo Travesedo, eta Errege Katolikoek XV. mendean sortutako noblezia titulu honen XXVI. titularra.

OÑATIKO KONDEZTA

Enrique IV.a Gaztelako erregeak sortu zuen Oñatiko Konde titulua 1469an. Oñatiko XIII. Jauna, Leongo erresumako Aitzindari Nagusi eta Errege Kontseiluko kide zen Iñigo Vélez de Guevara y Ayala jaunari eman zion titulua, "koroaren alde egindako lana eta zerbitzu ugariak aitortuz" Tra-

Oñatiko kondetza indarrean den noblezia titulua

Camilo Travesedo y Juliá da egungo Oñatiko Kondea. Enrique IV.a Gaztelako erregeak 1469an sortu zuen noblezia tituluaren XXVI. titularra da bera.



M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

vesedok azaldu digunez. Gero, haren arreba Isabel erregina 'Katolikoak' berretsi zuen titulua 1481eko irailaren 18an.

Gerora, 1640an, Felipe IV.a erregeak *Grandeza de España* edo Handitasun ohorea eman zion Villamedianako III. Kondea, Estatuko Gerra Kontseilaria eta Oñatiko V. Kondesa zen Catalina Vélez de Guevararen alarguna zen Iñigo Vélez de Guevara y Tassis jaunari. "Espainiako erregeek ematen duten noblezia dignitate gorena da *Grandeza* delakoa. Gaur egun, 3.000 inguru noblezia titulu daude Espainian, baina Handitasun mailakoak 415 besterik ez" argitu digu Travesedo jaunak.

KONDETZA GAUR EGUN

Egungo Oñatiko Kondeak 44 urte ditu eta Madrilen bizi da. Portu, Ubide eta Bideetako Ingeniaria da. Duela gutxira arte OHL eraikuntza enpresarentzat egin du lan, baina une honetan bere negozio propioa abian jartzeko prozesuan murgilduta dabil.

Konde tituluak ez omen du eskubide edo onura-bide berezirik ematen gaur egun. "Gehiago da harrotasun kontu bat. Gure arbasoek bere garaian koroaren alde egindako lana aitortzen duen titulu bat da, eta guretzako ohore bat da 1481etik datorren errekonozimendu hori duintasunez mantentzea. Gainerakoan, tituluak ez dakar inolako pribilegioirik ez eta betebeharririk ere, titulua- ren oinordeko izateko dagokion zerga ordaintzetik aparte. Jende askok uste du noblezia titulu bat izateagatik Estatuak diru kopuru bat ematen digula urtero, baina oker daude".

Oñatiko kondeak ez dauka



Camilo Travesedo Juliá jauna, egungo Oñatiko Kondea

Oñatirekin loturarik egun, ez dauka ondasunik hemen, baina ezagutzen du gure herria. "Bai, eta aitortu beharra daukat zoragarria dela: unibertsitatea, parrokia, eraikin historikoak, Zumeltze dorrea... Denon artean zaindu beharreko harribitxia da, benetan. Ahal dudan guztietan gomendatzen dut Oñati bisitaztea".

Hondarribiarekin ere harreman zuzena du Travesedo jaunak, bere emazte Elena Fernandez de Casadevante bertakoa baita sortzez. Honen aitona Jose Ramón Fernández de Casadevante Hondarribiko alkatea izan zen 1959-1966 artean, gogoratu digu Travesedok. "Urte horietan Hiri Antolamendu Plana garatu zen eta, besteak beste, Golf Kluba eratu zen (txiki geratua zen Lasartekoa ordezkatuz), Carlos V.aren jauregia berriro zen goi mailako hotel gisa erabiltzeko (eraikin ikusgarria da hau ere) eta, besteak beste, traineru taldea babestu eta sustatu zen, garaipen inportanteak lortuz. Oporretan, ahal dugunean, gusatzen zaigu bisita bat egitea Hondarribira. Hiri ederra da, oso ondo zaindua, eta hau ere beti gomendatzen dut".

EZBEHAR LARRIA

Egungo Oñatiko kondeak entzuteak bakarrik min ematen duen ezbehar larri bat bizi behar izan zuen 2012an, Doha-n, Qatar-eko hiriburuan, bizi zelarik. OHL (Obrascón, Huarte, Laín S.A.) eraikuntza enpresarentzat egiten zuen lan, eta hospitale baten eraikuntza lanak zuzentzen ari zen, bere lau seme-alabetako hiru (Almudena, Camilo eta Alfonso, 8, 5 eta 2 urtekoak) hil



KONDE TITULUA GAUR EGUN

Konde tituluak ez dakar eskubide edo betebeharririk egun. Gehiago da harrotasun kontu bat. Gure arbasoek bere garaian koroaren alde egindako lanaren aitortza da, eta guretzat ohore bat da

'HANDITASUN' OHOREA

1640an, Felipe IV. erregeak *Grandeza de España* ohorea eman zion Oñatiko V. kondesaren alarguna zen Iñigo Vélez de Guevara y Tassis jaunari. Espainiako erregeek ematen duten noblezia dignitate gorena da

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI



zirenean haurtzaindegi batean gertatutako sutearen ondorioz. Laugarren semea, Nicolás haur jaio berria, ez zegoen kiskalitako zentroan. Guztira 19 pertsona hil ziren sutean; 13 ordu, 4 ordu irakaste eta 2 ordu suhiltzaile.

Deskriba ezina den kolpea izan zen, jakina, baina, poliki poliki aurrera egitea lortu dutela esan digu Travesedo jaunak. "Seme-alaba bat hiltzea bizitza honetan gerta dakizukeen gauza gogorrena da. Ez diot inori opa. Inork ez du ulertzen. Are gutxiago, heriotzari bizkarra emanda bizi den gizarte honetan. Guk, zorionez, antzeko trantzetik pasatako jendearen laguntzari esker, 'Dortokak' izen duen lagun talde batekin, eta elizaren eta fedearen laguntzarekin gure bizitza berbideratzea lortu genuen eta zerura itxaropenez begiratu ahal izatea. Gure seme-alabek zerua ireki ziguten. Handik zaintzen gaituzte eta han ditugu zain. Inork ez du heriotzaz berba egin nahi gaur egun, baina heriotza da zerurako atea. Mingarria da, baina bertatik pasa behar da leku hobe batera iristeko. Kontua ez da gaintzea. Ikasi behar duzu seme-alabak sentitzen, bizirik daudela, baina beste era batera. Familiako parte bat hemen daukagu, eta bestea zeruan. Eta gozamina da, poza".

Terrorismoaren ondorioak ere nozitu behar izan zituen Travesedo jaunak, ETA erakundeak bere amonaren anaia Cristóbal Colón de Carvajal y Maroto almirantea hil baitzuen 1986an. "Hamar urte besterik ez nituen, baina gogoan dut familia osoa hondatu zuen tragedia izan zela. Atentatu horiek guztiek ez zuten sekula gertatu behar izan, eta

OÑATIKO KONDEAK HISTORIAN ZEHAR

I	Íñigo Vélez de Guevara y Ayala
II	Pedro Vélez de Guevara y Manrique
III	Ladrón Vélez de Guevara y de Velasco
IV	Pedro Vélez Ladrón de Guevara
V	Catalina de Guevara y Orbea
VI	Pedro Vélez de Guevara y Tassis
VII	Juan Vélez de Guevara
VIII	Íñigo Vélez de Guevara
IX	Catalina Vélez de Guevara y Manrique de la Cerda
X	Íñigo Manuel Vélez Ladrón de Guevara y Tassis
XI	Diego Gaspar Vélez de Guevara
XII	Melchora Vélez de Guevara
XIII	José María de Guzmán y Guevara
XIV	Diego Ventura de Guzmán y Fernández de Córdoba
XV	Diego Isidro de Guzmán y de la Cerda
XVI	Carlos Luis de Guzmán y de la Cerda
XVII	José Rainiero de Guzmán y de la Cerda
XVIII	María del Pilar de Guzmán y de la Cerda
XIX	Juan de Zavala y Guzmán
XX	Luis de Zavala y Guzmán
XXI	María del Pilar de Zavala y Guzmán
XXII	María del Pilar García-Sancho y Zavala
XXIII	Juan Bautista de Travesedo y García-Sancho
XXIV	José María Travesedo y Martínez de las Rivas
XXV	Juan Travesedo y Colón de Carvajal
XXVI	Camilo Travesedo y Juliá

COLON-EN ONDORENGOA

Oñatiko egungo kondea Cristóbal Colón nabigatzaile eta almirantearen ondorengo zuzena da aitaren aldeko amonaren adarretik.

gizarte osoa hondatu eta zatitu zuten. Tristeena da, gainera, heriotza horiek ez zutela ezertarako ere balio izan".

Ospe edo itzal handiko familia bateko kidea da Travesedo jauna eta, gainera, Amerika aurkitu zuen Cristobal Colón (Génova, 1451 - Valladolid, 1506) nabigatzaile eta almirantearen ondorengo zuzena da aitaren aldeko amonaren adarretik. "Hala da, bai. Egiari zor, ohorea da abizen hori eraman ahal izatea, historia erreparatu eta Cristobal Colón bezalako jendearen balio eta ahaleginari esker zenbat gauza lortu diren ikusten duzunean". ■

> GEBARA LEINUA

Nafarroan omen zuen Njatorria Gebaratarren leinuak, baina Erdi Aroaren bihotzean sendo finkaturik zegoen Arabako ipar-lautadan. Urkilla-Elgea mendilerroa gaintu eta Leintz zein Oñati aldeko lurretan ere hedatu zuen bere agintea. Ez dago garbi noiz hasi zen gure artean zuten nagusigoa, baina ukazina da, 1300-1400 inguruan behintzat, hemen ondo sustraiturik zeudela. XV. mendearen erdira arte Oñatiko jaun gisa agertzen ziren; handik aurrera, ordea, jaurreria konderri bilakatu zen, Gebaratarrek Oñatiko konde titulua eskuratu baitzuten Gaztelako erregeengandik.

Leiztarrek XVI. gizaldira orduko lortu zuten Gebara familiarekiko menpekotasuna astintzea. Oñatiarrok, ostera, XIX.era arte arte jasan behar izan genuen uztarri hori, 1845ean Oñatik Gipuzkoarekin bat egin zuen arte, hain zuzen ere. Arazo latzak izaten zituen sarritan herriak, auzi eta borroka gogorak sortzen zirelako, udalaren eta kondearen kompetentziak zirela bide; odoltsuak izaterainokoak ere bai inoniz. Azkenera orduko bere eragina ahulduz joan bazen ere, kondeak hainbat eliza, lur, baso, etxe, ola eta errotekiko kontrol zuzenari eutsi zion berandura arte.

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

merezi

duzun

herria

ehbildu



MADDALENA
IRIARTE
OKINENA

egiteko

prest.

maddalena

ZURE LEHENDAKARIA

Gaztelu baten aztarnak aurkitu dituzte Gazteluaitzen

► XVI. mendeko agirietan aipatzen den **Artiako gaztelua** litzateke eta meatzaritzarekin lotuta egon zitekeela uste du Antton Arrieta ikertzaileak

Urteak zeramatzan Antton Arrietak Iñaki Zumalderen (1926-2011) *Historia de Oñate* liburuan aipatzen den Artiako gazteluaren aztarnen bila. Orain dela gutxira arte, baina, gaztelu hori Elgea-Urkilla mendilerroan egon zela uste izan dute. Zumaldek berak Burgamendi gaina proposatzen zuen gazteluaren balizko kokalekutzat, mendiaren behealdeko bi toponimo edo leku-izenetan oinarrituta: *Katilluiturri* (gazteluko iturria) iturria eta Araba aldera dagoen *Argastelu* (harrizko gaztelu?) izeneko erreka. Baina Zumaldek aipatzen dituen XVI. mendeko agirien berrazterketak Arantzazu erreka gaineko harkaiztegi bilatzera eraman zuen Arrieta, eta ziur dago Gazteluaitz gainean aurkitu berri dituzten aztarnak Artiako gazteluarenak direla. Foru Aldundiari eskatu dio aztarnategi arkeologiko izendatzea gune hori.



Kareharrizko harkaitz ikusgarria da Gazteluaitz, Arantzazu erreka gaineko eta haranaren gain-gainean

Historia zalea da Antton Arrieta Valverde, eta bi hamarkada luze daramatza arkitektura historiko militarren esparrua ikertzen. *Gipuzkoako gazteluak* (2006), *Arabako gazteluak* (2018) eta *Bizkaiko gazteluak* (2019) liburuak argitaratu ditu, besteak beste. Arabako liburuan ziurtzat jotzen zuen Artiako gotorlekua, baina kokapena zehaztu gabe.

Iñaki Zumalde historialariak eman zuen Artiako gazteluaren berri *Historia de Oñate* liburuan, udal artxibategiko XVI. mendeko bi agirietako aipamenak jasoz. Zumaldek berak Burgamendi gaina proposatzen zuen gazteluaren balizko kokalekutzat, mendiaren behealdean dauden bi leku-izenetan (*Katilluiturri* eta *Argastelu*) oinarrituta.

Burgamendiko proposamenak, baina, ez zuen erabat gogobetetzen Arrieta, ikertzaileak berak azaldu digunez. "Agirietako

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

bi esalditan *Artiako gazteluko haitza* aipatzen da, eta Burgamendi malda goxoko mendia da, harkaitzik gabea". Hala ere, urte askotan ontzat eman zen Zumalderen hipotesia, eta 2006an, 'Gipuzkoako gazteluak' liburua prestatzen ari zela, goialde guztia miatu zuen Arrietak, Gaboño menditik garai bateko Artiako bentaren kokalekuraino, eta 2019an ere pare bat aldiz ibili ziren aztarna bila Artiako baserri edo baselizako mendibizkarrean, baina alperrik.

1556ko AGIRIA

Beraz, Oñatiko udal artxibategira etortzea erabaki zuen Arrietak, *Historia de Oñate* liburuan aipatzen diren agiriak berraztertu eta argibide berrien bila, eta bai lortu ere. 1556ko dokumentu batean hainbat leku-izen aipatzen dira, udalaren bazkaleku bat mugarrizeko helburuarekin. "Hor aipatzen diren toponimoen hurrenkerak Arantzazuko erreka gaineko harkaitzegira eraman gintuen. Gainera, agiri horretan argi azaltzen da Gabinoren (Gaboño) goialdeak bazkalekutik kanpo gelditzen zirela".

Agiri horretan aipatzen den *Arrigoyenaga* toponimoa kokatzea izan zen gazteluaren kokapena zehazteko gakoa. "*Arrigoyenaga* ez zen inongo planotan azaltzen, eta inguruko bizi-lagunentzat ere ezezaguna zen, baina gero konturatu ginen izen hori *Arriona* bilakatu dela (noiz-bait *Arrionaga*), eta hori argituta garbi zegoen Gazteluaitz izan zehar zela Artiako gazteluaren kokalekua" azaldu digu Arrietak.

Tokia aztertu ondoren, Artiako harkaitz-gaztelu bat izango zela dio Arrietak, baina oraingoz ezer gutxi dakite eraikinaren egitura edo arkitekturari buruz. "Tontorrean 9x4 metroko ordoki bat antzematen da, gizakiak lautua, haitza landuz, betelanez eta murruxkiz eratua. Beheraxeago beste gune bat nabaritzen da, terraza moduko bat, oso interesgarria; gazteluko uraska aterpetzen zuen egitura, agian? Oraingoz ez dakigu. Indusketa gehiago egin



Goian, Gazteluaitz gailurreko ordokia, haitza landuz eta murruxkiz eta betelanez egina. Eskuman, ikerketa lana zuzendu duen Antton Arrieta historia zalea. Beste lan batzuen artean, 'Euskal Herriko 101 gaztelu' argitaratu zuen Some Matxiñenarekin batera 2003an, Ikastolen Elkartearen eskutik. Interneten dago ikusgai



beharko lirateke".

HIPOTESIAK

Gazteluaren erabilera edo funtzioari dagokionez ere, hipotesiak baino ez, oraingoz. "Gipuzkoan zehar aurkitzen ari garen gaztelu asko abelbide eta larre guneetan daude eta, badirudi, abeltzaintzarekin lotuta egon zitezkeela; baina kontuan hartuz Arriona inguruan mea-zuloen aztarnak daudela, agian meatzaritzarekin lotuta egon zitekeen Artiako gaztelua, Zerainen aurkitu duguna bezalaxe. Baina sakonago aztertu beharreko gaia da".

Gaztelua noizkoa den ere ez dago jakiterik, oraindik. Hipotesi batzuk, hala ere, aurreratu dizkigu Arrietak. "Mota hone-

tako 19 gaztelu erroldatu ditugu Gipuzkoan, eta beste dozena erdi zerrendan sartu gabe utzi ditugu, zuhur jokatzearren. Antzeko eredu bati jarraitzen dioten eraikinak dira. 'Errege gaztelu' moduko gotorlekuak bazeuden Gipuzkoan, baina mendietako txiki hauek zaharrak dirudite, beharbada gaztelarrek burutu-tako 1200 urteko konkista baino lehenagokoak. Gure ustez, ikerkuntzarako esparru interesgarri bat zabaltzen ari da, baliabide berriak gure iragana gehiago ezagutzeko, baina gazteluak induskatu behar dira, agirien bidez lortu ezin den informazioa eskuratu ahal izateko. Euskal Herrian erromatarrek eta historiaurreak liluratu dituzte arkeologoak, eta pentsatu izan dute Erdi Aroa ez zela arkeologiarako. Ezjakintasun handia dago, ezin baitugu esan ezta noizkoak diren ere; Nafarroako Antso III.ak (1004-1030) erresuma berrantolatatu zuenekoak? Lehenagoko giza-taldeentzako antolakuntza eredu baten lekukoak? Lehen feudalizazioan bando-gerretako leinuen aurrekoak?...".

Arrietak Gipuzkoako Foru Aldundiari eman dio aurkikuntzaren berri, eta aztarnategi arkeologiko izenda dezan eskatu. Arkeologiaren txanda da orain. ■

■ ■
Mota honetako 19 gaztelu erroldatu ditugu Gipuzkoan, eta gure ustez ikerketarako esparru interesgarri bat zabaltzen ari da

Parapenteen paus

Gipuzkoako Aire Kirol Federazioak eta Zelaibarren baserriko jabeek sinatu duten hitzarmenari esker, parapentezaleek lurreratzeko tokia izango dute Berezaon.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net  



carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

aleku



Aloña-Belar ingurua gune pribilegiatua da aire kirolak praktikatzeko, baina orain dela gutxira arte arazo bat zegoen: parapentelariak ez zeukaten lur hartzeko baimendutako lekurik eta egokien ikusten zuten edo ahal zuten sailean lurreratzen ziren, belarra zapalduz eta, maiz, baserriarren haserrea eraginez.

Orain, aldiz, Gipuzkoako Aire Kirol Federazioak eta Zelabarren baserriko jabeek adostu duten hitzarmenari esker, 1.250m²-ko zelai eremu bat finkatu da aipatutako baserriaren atzealdean parapentelariak erabil dezaten. "Berezaio auzoan lurreratzeko egokiak diren lursailen jabeekin egon ginen eta Zelabarrenen eman digute baimena" azaldu digute Oñatiko eta eskualdeko parapentezaleak biltzen dituen *Amillena* taldeko kideek. "Ez da zelairik onena, inguruan linea elektriko bat dagoelako, baina balekoa da eta pozik gaude".

Hitzarmenak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesa du eta baita Oñatiko udalarena ere. Hala, udalak konpromisoa hartu du lurreratzeko erabiliko den saila garbi mantentzeko, eta panel bat ipini du Santa Lutzia parkean lurreratze gunearen erabilera baldintzak eta inguru horretan hegan egiteko gomendioak eta arriskuak aipatuz.

Lurjabeak errenta bat jasoko du zelaia lagatzearen truke eta salbuetsita geratuko da lurreratze eremuaren erabileratik erator litekeen edozein erantzukizunetik.

ALDE GUZTIAK POZIK

Amillena aire kirol taldeko kideak gustura daude hitzarmenarekin. "Oñatiko eta inguruko parapen-

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Oñatiko udalaren babesa du Aire kirol federazioak eta Zelabarren baserriko bizilagunek sinatu duten hitzarmenak

tezaleek urte asko daramatzagu hemen hegan egiten, eta bazen garaia lurreratzeko gunea erregularizatzeko. Guk harreman ona izan nahi dugu lurjabeekin, eta akordio honen helburua horixe da, lurreratzeko leku bat izendatzea ahalik eta enbarazu gutxien eragiteko baserriarrei. Azken batean, Aloña inguruak hegan egiteko eskaintzen dituen baldintza ederrak aprobetxatzea da helburua; erraztasunak ematea jendeak gozatu ahal izateko".

Oñatiko udalak ere positiboki baloratu du hitzarmena, Maite Anton kirol batzordeko buruak azaldu digunez. "Gu bitartekari lanak egitera mugatu gara, eta lurreratzeko eremua txukun mantentzeko konpromisoa hartu dugu. Oñatin parapente zale talde polita dago, aspalditik egiten da hegan bertan, eta uste



Panel bat ipini du udalak Santa Lutzian, parapenteak lurreratzeko gunearen erabilera baldintzak eta inguru horretan hegan egiteko gomendioak eta arriskuak azalduz

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
ARROZTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

dugu komenigarria zela pittin bat erregularizatzea eta baliabideak eskaintzea, edozein zelaitan lurreratu barik horretarako gune bat finkatuta. Oraingoz jendea gustura dago, ez dago kexarik eta, beraz, balorazioa positiboa da".

Lurjabeek ere ez daukate kexarik, oraingoz. "Bagenuen kezka txiki bat, zenbat jende ibiliko ote zen, baina oraingoz gustura gaude; ez dabil jendetza handirik, eta parapentelariak errespetatzen dituzte erabilera arauak" azaldu digu Ainhoa Oro-bengoak.

Akordioa, oraingoz, urtez urte berrituko da. "Poliki poliki joan nahi dugu; zenbat jende datorren ikusi, hauen jokabidea... eta dena ondo badoa, asmoa da ute gehiagorako akordioak sinatzea, batez ere papeleoak ekiditeko" adierazi digute Amillena taldeko kideek.



Aire baldintza egokiek, parapentistak 2.000 metroko altuera hartzerantz iristen dira (Arg.: Iñigo Diaz).

Amillena, Debagoieneko Aire Kirol Taldea

Debagoieneko parapentelariak biltzen dituen taldea da Amillena. Guztira 30 bat lagun dira, 12 inguru oñatiarrak (Euskadin 500 bat federatu daude).

Aire kirolak sustatzea eta hasiberriei laguntza, aholkua eta babesa ematea da taldearen zereginetako bat, formazioaren garrantzia (segurtasun ikastaroak...) azpimarratuz betiere.

Parapentean hegan egiten ikasteko 4-6 hilabeteko ikastaroa egin behar da, eta titulua eskuratu ahal izateko bi urte inguru behar izaten dira, esperientzia hartu bitartean. Horretarako dira lagungarriak Amillena bezalako taldeak, esperientziadun jendearekin hegan egiteko aukera ematen baitute.

Bestalde, Euskadi nahiz estatu mailako txapelketetara joan nahi duten taldekideei laguntzen die klubak, eta taldeko kideei zuzendutako txapelketa batzuk ere antolatu ohi ditu (hegaldu luzeena...), pizgarri moduan. Kurtzeberri edo Belarren aireratuta, 150 km.-ko (lerro zuzenean) hegaldiak egitera iritsi dira (5-6 ordu), Sorian, Errioxan eta Aragoiko mugan lurreratuz.



Baliza meteorologikoa edonoren esku

Amillena aire kirol taldeko kideek baliza meteorologikoa ipini zuten Belarren orain dela bost urte. Temperaturaz gain, haizearen norabidea, abiadura, eta hurrengo orduetan izango duen joerari buruzko informazioa ematen du, besteak beste. Argazkiak ere ateratzen ditu 10 minuturo, eta, beraz, gailu oso praktikoa eta lagungarria da hegan egin nahi duenarentzat.

Baina parapente zaleentzat ez ezik, beste jende askorentzat ere baliagarria gertatzen da balizak ematen duen informazioa. Neguan, adibidez, eskiatzaileek elurraren maila eta baldintzak ikusteko aukera dute, eta mendi-bizikletan edo mendi buelta bat ematera doan jende askok kontsultatu ohi du balizaren informazioa. ETBko eguraldi tartean ere behin baino gehiagotan eman dituzte bertako datuak.

Belarreko balizako datuak edonoren eskura daude <https://holfuy.com> webgunean, *Aloña (Oñati) s310* estazioa aukeratuta. Telefonora deskargatu daitekeen doako aplikazio bat ere badu.



Belarreko etxabolan dago baliza meteorologikoa. Eskuman, Holfuy aplikazioaren bidez lor daitekeen informazioaren adibide bat (Amillena)



Susana Arregi gogoan

► Haritza landatu dute San Martinen, duela 30 urte Irunberrin hilda agertu zen Susana Arregi gogoratzeko ► Han jazotakoa argitzea exijitu dute

Susana Arregi Maiztegi (Oñati, 1964-Irunberri 1990) zena oroitzeke ekitaldia egin zen ekainaren 26an San Martin zuhaitzian, Oñatiko Egari Zor taldeak deituta. Haritz bat landatu zuten duela 30 urte Irunberriko arroilan hilda agertu zen ETako kidea gogoratzeko, haren ama eta anaiak bertan zirela.

30 urte igaro diren arren, Irunberrin gertatutakoa argitu gabe dagoela gogorarazi zuten Egari Zor taldekoek, Susanak eta Jon Lizarralde komando-kideek beren buruaz beste egin zutela dioen bertsio ofiziala inork ez duela sinisten azpimarratuz. Susana "eredu" dela gaineratu zuten, Euskal Herriaren eta askatasunaren alde erakutsi zuen konpromisoagatik, eta lanean jarraituko dutela Irunberriko gertaerak argitu arte.

Gogoratu, Nafarroako komandoko kide ziren Arregi, Lizarralde eta German Rubenachek tiroketa bat izan zutela guardia zibilekin 1990eko ekainaren 25ean. Tiroketa haren ondorioz Jose Luis Herviás sargentoa hil zen. Handik ordu batzuetara Guardia Zibilak Rubenach aurkitu zuen larriki zaurituta, buruan tiro bat zuela (bertsio ofizialaren arabera) eta hurrengo goizean Arregi eta Lizarralderen gorpuak agertu ziren. Barne ministroak 'suizidio kolektiboa'ren bertsioa eman zuen, baina puntu ilun asko daude bertsio hori zalantzan jartzen dutenak.



'Irunberri argitu! 30 urte'

Oñatiko Egari Zor taldeak 'Irunberri argitu! 30 urte' aldikaria banatuko du herriko etxe guztietara datozen egunetan. 1990eko ekainaren 25ean eta 26an Irunberriko arroilan gertatutakoaren kontaketa egiten da bertan, Espainiako gobernuak eta Guardia Zibilak emandako bertsio ofiziala aztertuz, eta bertsio hori zalantzan jartzeko agertu ziren zantzu ugariak bilduz.

LGTBI pertsonen eskubideen aldeko mozioa onartu du udalak

LGTBI kolektiboaren aldeko zortzi puntuko konpromiso zerrenda onartu zuen udalbatzak aho batez ekaineko osoko bilkuran.

Genero identitatearen eta orientazio sexualaren arabera jendea ez diskriminatzeke konpromisoa berresten du mozioak, eta gaur egun oraindik dauden oztopoak gainditzeko borondatea.

LGTBI pertsonen egogoraren diagnostikoa egitea eta honi erantzun dion talka-plan bat bultzatzea, premiazkoak diren ekintzak lehenetsiz.

LGTBI kolektiboaren aurkako indarkeriaren aurrean erakundearen koordinazio, arreta eta erantzun publikorako protokoloak diseinatzea eta abian jartzea.

LGTBI pertsonen eskubideak bermatzera bideratutako neurriak aktibatzea.

Haurrak eta nerabe transsexualak babesteko neurriak ezartzea eta ikuspegi feminista duten prestakuntza prozesuak bultzatzea.

Hauteskunde kanpaina

Uztailaren 12ko hauteskundetara begirako ekitaldia egingo du EH Bilduk Oñatin uztailaren 3an, herriko plazan, 19:30etan. Arkaitz Rodriguez eta Izaro Elorzak parte hartuko dute.

**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



Arantzazu Sagarzazu,
Aimar Uribealago,
Beñat Agirrebengoa,
Iñaki Urizar eta Ander
Lizarralde, Ertzilgo
elur-zuloa garbitzen
ari den lantaldea

Ondarea berreskuratzen

Ertzilgo neberia dabil garbiketan herriko kuadrilla bat

Berezaoko auzotar batzuek bazuten nebera edo elur-zulo honen berri, baina erabat utzita eta sasiak hartuta zegoen, eskumako orrian ikusten den moduan. Zorionez, kultur ondarearekiko kezka eta sentsibiltatea duen herritar talde batek ingurua garbitu eta zuloan pilatutako sastrakak eta lurra ateratzeari ekin dio, duela ehun bat urtera arte erabili izan zen nebera honen egitura agerian utziz.

Tokilloko indarretxetik hurrean, Ertzil baserriaren jabetzakoa den *Aldai-ziarra* izeneko lursailean dago neberia. Berau garbitzen ari den lantaldeak eskuratu ahal izan duen XX. mende hasierako eskritura batean aipatzen da elur-zuloa, gaztainadiaren deskribapena egiten denean, eta, bestalde, Maider Irizarrek 1997an Ertzilgo alaba Justa Aiastui zenari egindako elkarrizketa batean ere aipatzen dira neberriaren inguruko kontuak. Audioaren kalitatea ez da nahi bezain ona, baina atera daiteke

informazio interesgarria.

Izan ere, tamalez, gaur egun ez da inor gelditzen langintza hau zuzenean ezagutu duenik. Ehun bat urte dira elur-zuloak bertan behera geratu zirela. XIX. mende amaieran argindarra baliatuz izotza modu artifizialean ekoizten hasi ziren eta horrek elur-zuloen gainbehera ekarri zuen. Beaz, oso zaila da lanbide honen inguruko testigantza edo lekukotasunak aurkitzea, baina garbiketa lanean diharduen taldeko kideek ikertzen jarraitzen dute, eta badute itzaropena

Orain dela ehun urtera arte erabili izan ziren elur-zuloak izotza egiteko. Osasun arloan (sukarra...) eta sukaldaritzan (jakiak kontserbatzeko, izozkiak, freskagarriak...) erabiltzen zen

Ertzilgo neberriari buruzko informazioa (nola egiten zen lan, zertarako, izotzaren prezioa...) emango duten dokumentu edo agiri gehiago aurkitzeko.

ASPALDIKO LANBIDEA

Elur-zuloak antzinatik erabili izan dira herri askotan, eta Euskal Herriari dagokionez, XVI. gizaletatik aurrera hasi ziren ugartitzen, baina XVII-XVIII.ekoak dira gehienak.

Kasu askotan, tokian tokiko udala izaten zen elur-zuloen jabe eta enkante bidez uzten zuen herritar partikular baten esku. Honen epe eta prezio jakin batean saldu behar izaten zuen izotza.

Izenak berak dioen moduan, elurra pilatu eta kontserbatzeko erabiltzen ziren lekuei esaten zaie elur-zuloak. Neguan zuloaren ahorraino eramaten zen



Goiko argazkietan ikusten den moduan, sasiak eta naharrak hartuta zegoen Ertzilgo neberia

elurra leretan, otzaretan edo bolak eginda bultzaka, eta ondoren zuloan sartu eta zapaldu egiten zuten izotz bihurtu arte. Normalean, 30-50 zentimetroko elur geruzak egiten ziren, eta orbelez edo iraz osatutako beste bat tartekatzen zen, izotza hobeto isolatzeko, eta ateratzea samurtzeko. Udan bloketan ateratzen zen izotza, kontsumo tokietara eramateko.

Erabilpen asko zituen izotzak, bai osasun arloan (sukarra jaisteko, erreduretan, odol-jarioak gelditzeko...) eta baita sukaldaritzan ere (elikagaiak kontserbatzeko, izozkiak eta limonadak egiteko...). Bainu-etxeak ere bezero inportanteak izaten ziren. Ertzilgo neberiarri dago-kionez, ospitaleetan eta izozkiak egiteko erabiltzen omen zen bertako izotza, Justa Aiastuik gorago aipatutako elkarrizketan dioenez.

ELUR-ZULO MOTAK

Bi nebera mota egoten ziren: alde batetik, naturalak; berezko mendi-zulo edo leizeak; bestetik, artifizialak, landuagoak. Gehienak borobilak izaten ziren, 3-10 metro arteko diametro eta 3-12 metro arteko sakonerakoak. Zuloaren hormak ia beti harriz estalita egoten ziren eta, gehienek, estalki bat izaten zuten (teilatua, etxabola edo bobeda moduko bat),


haize, eguzki eta euritik babesteko, eta tresneria nahiz orbela gordetzeko. Ertzilgo zuloan agertu dira estalki horren arrastoak izan daitezkeen teila hondarrak.

Elur-zulo naturalak herri guneeetatik urrun samar gelditzen zirenez, erdibideko neberak egokitzen ziren izotzaren garraioa errazteko. Gauzez edo goizean goiz garraiatzen zen izotza, gurdiz, astoz edo mandoz, iraz eta orbelez ondo babestuta beti ere.

Ertzilgo neberiak 5 metroko diametroa du eta, oraingoz, 2 metroko sakonera; baina hondarra atera beharra dago benetako sakonera ikusi ahal izateko.

ETA ORAIN ZER?

Eta hemendik aurrera zer? Horixe da garbiketa lanean dihardutenen galdera: zer egin neberiarekin. Ahal duten bitartean zuloa eta ingurua txukuntzen jarraituko dute. "Gure asmoa da herriari ezagutzera ematea hemen badela elur-zulo bat, eta hortik aurrera ikusi egin beharko da zer nolako interesa edo egarria dagoen. Pasealekutik hurbil dagoenez, agian merezi du ibilbidetxo bat prestatzea, jendeak aukera izan dezan gure kulturaren parte izan den elur-zulo bat bertatik bertara ikusteko. Azken batean, oso aspaldikoa ez den garai eta bizimodu baten lekukoa da". ■




Goiko argazkietan elurzuloen eskemak. Ezkerrean, Piriniotako elur-garraitzaileak. Behean, Artzanburuko nebera naturala (Argk.: 'Bergara aldeko langintza zaharrak' liburua)



Goribargoitti inguruan egon zen elurzulo bat. Argazkia 1910ekoa da, eta elur batze lanetan jardundako kuadrilla ageri da bertan. (Aldizkari honetako 43. zenbakian Antxiñako Fotografia atalean argitaratua)

Ur Uhinak parkea uztailearen lean irekiko da, baina prebentzio neurri bereziekin

Gehenez 22 neska-mutiko ibili ahal izango dira aldiro jolas eremuan. Txanda eskatu beharko da jolas gunera sartzeko.



Planoan adierazten den moduan, jolas eremua itxita eogngo da jolasak martxan dauden bitartean, eta sarrera-irteerak era kontrolatuan egiteko harrera/zaintza zerbitzua egongo da

Uztailarekin batera jarriko dira martxan Larrañako ur txorrotak haurren jostagarri, baina hainbat prebentzio neurriekin, Covid-19aren kutsatze arriskua gutxitzeko helburuarekin beti ere. Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak argitara eman duen '2020 denboraldian igerileku-instalazioak ireki eta mantentzeko irizpide sanitarioak' kontingentzia planari jarraituz, Oñatiko udalak hainbat neurri hartzea erabaki du, hala nola: sarbideen egokitzapena eta kontrola, distantzia soziala mantentzeko neurriak, erabiltzaileei zuzendutako informazioa ematea... Beraz, Ur Uhinak parkean jolasteko aukera egongo da, baina jarraian azaltzen diren irizpideen arabera.

ERABILRA IRIZPIDEAK

• ERRESERBA

- Erabilera erreserba egin beharko da ur-parkean jolasteko.
- Egunean bertan egingo da erreserba, **698 933 874** telefonora deituz, edo parkean bertan, zerbitzu ordutegian.
- Erreserba eskaera bakoitzean 3 leku erreserbatu daitezke.

• TXANDEN IRAUPENA

- Erabilera txanda bakoitzaren iraupena 30 minutukoa izango da. (Erabilera ohitura eta beharren arabera, txanden iraupena alda daiteke).
- Egunean txanda bakarra har daiteke. (Eskariaren arabera, egunean eskatu ahal izango den txanda kopurua alda daiteke).

• ZAINZA ZERBITZUA

- Jolas eremua itxita egongo da jolasak martxan dauden bitartean eta harrera/zaintza zerbitzua egongo da ordutegi horretan.

• AFOROA

- Gehenez 22 neska-mutiko ibili ahal izango dira jolas eremuan txanda bakoitzeko. (Egoeraren arabera, aforoa alda daiteke).

• GARBITASUN NEURRIAK

- Parkera sartzekoan eta bertatik irteterakoan, eskuak garbitu.
- Bainularien artean 2 metroko segurtasun distantzia errespetatu behar da, bai jolas gunean eta baita belardian ere.
- Jolaserako objektuak (baloiak...) ezingo dira erabili.
- Zaindu itzazu adingabeak, eta prebentzio neurriak bete ditzaten insistitu.
- Ez partekatu toallak eta etxera iritsitakoan garbitu, bainu-jantziarekin batera

• EGUTEGI-ORDUTEGIA

- Uztailearen 1etik irailaren 20ra egongo da zabalik Ur Uhinak parkea, goizez (11:00-13:00) eta arratsaldez (15:00-20:00).



Zure etxebizitzaren hobetzeko prest

Amaia igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ilogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati



Kirol zerbitzuak martxan berriro

Alarma egoera altxatzearekin batera, udal kirol zerbitzuak ere martxan jarri dira era mailakatuan. Aurrena Zubikoa kiroldegia (kantxak, fit-bike eta pilates gelak, dutxak...) eta Azkoagain nahiz Larrañako kirol instalazioak ireki zituzten, eta astebete beranduago Eltzia kirol gunea.

Ondoko argazkietan ikusten den moduan, hiru gelatan banatu dute Eltzia kirol gunea, aparatuen arteko distantzia bermatzeko. Gimnasio gela nagusiaz gain (10 laguneko aforoa, gehienez), bizikleta gela (8 pertsona, gehienez) eta luzaketak egiteko beste gela bat (7 lagun, gehienez) egokitu dituzte.

TXANDA HARTU BEHAR DA Eltzia kirol gunea erabiltzeko aurrez txanda hartu behar da Zubikoa kiroldegira (943716375) deituta. Egun batetik besterako hartu behar da txanda (egunean bertan ere har daiteke, leku liberrik baldin badago). Bi orduko jarduera txandak antolatu dira goizeko 7:30etatik iluntzeko 21:00ak arte (eguerdi partean, 13:30-15:00 itxi egiten dute garbiketa eta desinfekzio lanak egiteko. Larunbatetan goizez (8:45-13:30) dago zabalik. Igande eta jai egunetan itxita.

Aldagelak badaude, baina kirol arropak etxetik jantzita eramatea gomendatzen da (kirola egiteko oinetakoak motxilan eraman eta kiroldegian sartu ondoren aldatu). Toalla eta ura ere nork berea eraman behar ditu, eta lurreko ariketak egiteko ere nork bere esterila eramatea gomendatzen da. Kirol materiala ere garbitu eta desinfektatu egin behar dira erabili ostean.

Larrañako kirol instalazioak erabiltzeko erreserbak ere kiroldegian (943716375) egin behar dira.

Bi sorosle eta zainzaile bat ari dira aurten Usakon

Herribusak egunean bi joan-etorri egingo ditu bertara

Ekainaren 22an hasi zen ofizialki bainu denboraldia Usakon, ohi baino baldintza estuagoekin, eta normalean baino baliabide gehiagorekin, bizi dugun osasun egoera bereziak eskatzen duen eran.

Hala, aurten bi sorosle egongo dira ur putzua eta inguruak zaintzen, egunero, 15:00etatik 21:00etara bat, eta 16:00etatik 20:00etara bestea. Gainera, zainzaile-hezitzaile bat ere egongo da, Covid-19aren kontrako neurriak jakinarazi eta be-
tearazteaz arduratuko dena. Azken hau batez ere goiko zelaian ibiliko da, pertsonen arteko gutxienezko distantziak mantentzen direla bermatu eta jende-pilaketa handiak ekiditeko, besteak beste.



Debekatuta dago GI-3593 errepide baztarrean aparkatzea

HERRIBUS ZERBITZUA

Bainu denboraldiak dirauen bitartean, irailaren 12ra arte (abuztuko lehen hiru asteetan izan ezik), Herribusak egunean bi aldiz joango da Usakora. Zehazki, Ugarkaldetik 16:00etan eta 19:00etan irteten diren autobusek

egingo dute Zañarturainoko joan-etorria.

Illo horretan, gogoratu behar da, debekatuta dagoela Zañartuko GI-3593 errepidean autoa aparkatzea. Foru Aldundiaren eskumeneko errepidea denez, Ertzaintza arduratuko da errepidea zaintzeaz.

Aurten, oraingoz behintzat, udalak ez du Zañartun aparkalekurik egokitzeko asmorik, eta Usakora autoz hurbildu nahi dutenek kanposantuko eta Munazategi guneko aparkalekuak erabili ahal izango dituzte.

Gogoratu, bestalde, bainu gunera dauden lau sarreretatik bat, Usako baserrikoa, itxita egongo dela aurten.

ALDAKETAK 2020ko EGUTEGI FISKALEAN

Covid-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz 2020ko zerga egutegiak zenbait aldaketa izan ditu epemuga eta kobrantzei dagokienez, jarraian adierazten den moduan:

- **TRAKZIKO MEKANIKOKO IBIGAILUEN GAINEKO ZERGA (TMIZ)**

Ordaintzeko borondatezko epea irailaren 15era arte luzatu da

- **ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA (OHZ/IBI)**

Borondatezko epea abuztuaren 1etik irailaren 15era izango da.

Helbideratuta dutenei borondatezko epearen azken egunean egingo zaie kargua. **OHARRA:** Udaletxean emandako helbideraketa kontua zuzena ez bada, ezeztatuta baldin badago edo aipatutako datan ordainketa eragotziko duen edozein arrazaoi badago, borondatezko epea bukatu baino lehen udalarekin harremanetan jarri behar da, errekarurik ez izateko.

- **IBI IRAUNKORRA, GARAJEKO SARRERA TASA eta KANPOSANTUA**

Helbideratuen kargu eguna urriaren 15a izango da



Udaleko Partaidetza batzordeko buru Anik Zubizarreta eta herritar boluntario sareko kide bat maskarilak banatzen

la 8.000 maskarila banatu ditu Udalak herritarren artean

Uztaileko Zaintza-Hezitzaile zerbitzuan parte hartuko duten neska-mutikoei eta hauen begiraleei banatuko zaizkien musukoak kontuan hartuz, ia 8.000 dira udalاک herritarren artean banatu dituen maskarilak. Gogoratu, 70 urtetik gorako herritarrei postaz bidali zaiela musuko bana (2.000 pasatxo, denera) eta gainerako herritarrek plazan jaso ahal izan dituztela. "Gure aurreikuspenak bete dira" adierazi digu Anik Zubizarretak, udaleko Partaidetza batzordeko buruak. "Ez genuen uste hain egun gutxitan hainbeste jenderengana iritsi ahal izango ginenez, eta oso pozik gaude ekimenak izan duen harrerarekin". Gure esku dago orain, jasotako maskarilak erabiltzea, arduraz, distantzia soziala bermatu ezin den guneeetan bereziki.

'MASKARILLA SOLIDARIOAK'

Udalaren ekimena txalotzekoa izan bada, beste horrenbeste esan daiteke 'Maskarila solidarioak' taldeko kideak (Sandra Lopez, Lide Osinaga eta Begoña Zurikarai) egiten ari diren lanari buruz. Pandemia gure artera iritsi orduko hasi ziren maskarilak prestatzen musu truke, musuko premia handiena zegoen garaian. Jasotako donazioei esker (oihalak, haria, dirua...) ehunka musuko josi eta banatu dituzte behar handiena zutenen artean, eta berdin jarraituko dute beharra dagoen artean. Beharra duena Facebook bidez (*Maskarilasolidarioak Oñati*) jar daiteke harremanetan beraiekin.



D2030 egitasmoa sustatzeko hitzarmena sinatuko du Udalak

Iraunkortasun printzipioa erdigunean jarriz, hurrengo hamar urteei begira Debagoiena eskualdeak dituen erronka nagusiei erantzuteko garapen eredu finkatzeko helburua duen ekimena da D2030, hainbat erakunde publiko eta pribatuk sustatzen dutena, hala nola: Foru Aldundia, Debagoiena Mankomunitatea, Mondragon Unibertsitatea, Mondragon Koop. elkarteak, Ulma Taldea.... Balio ekonomikoa sortzeaz gain, balio soziala ere sortuko duen eta natur ingurunea zainduko duen garapen eredu iraunkorra sustatzea da helburua.

Komuna ipini du udalak Aiastuiko azpi-pasoan



Argazkian ikusten den moduan, instalatuta dago jada komun publikoa Aiastui pareko errepide azpiko pasabidearen ondoan, eta argindar konpainiaren baimena baino ez da falta funtzionatzen hasteko. Iturria ere ipini du udalak, eta atsedeneku txiki bat atontzeko asmoa ere badu, bi eserlekurekin. Pare bat zuhaitz ere landatuko ditu aurrerago. Gogoratu, 2018ko Partaidetzazko Aurrekontuetan herritarren boto gehien jaso zuen inbertsioa izan zela komun publiko bana jartzea Torreazou-Madalena eta Olabarrieta-Asentzio ibilbideetan.

80.000 euro, kultura arloko proiektuak eta sormen lanak sustatzeko

Udaleko Kultura departamentuaren dirulaguntza deialdiak bi lerro ditu: kultur proiektuak eta programak gauzatzeko 66.000 euroko diru saila, batetik, eta irabazi asmorik gabeko talde edo norbanakoek garatuko dituzten sormen lanak bultzatzeko 14.000 euro, bestetik. Uztailearen 27ra arteko epea dago eskaerak aurkezteko HAZ bulegoan.

C1 maila prestatzeko ikastaroa emango du euskaltegiak irailean

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegiak C1 maila (lehenengo EGA) prestatzeko ikastaroa eskainiko du irailean. Hona hemen xehetasunak:

- **Data:** irailaren 1etik 25era
- **Ordutegia:** 8:30-13:15
- **Ordu kopurua:** 80
- **Prezioa:** 117,30€
- **Matrikula epea:** uztailak 1-15
- **Idazkaritzako ordutegia:** 10:00-14:00

Babes protokoloa: Derrigorrezkoa izango da musukoa jartzea eta higiene neurriak hartzea.



Jai batzordearen bilera irekia egingo da uztailaren 7an

Udaleko Kultura sailak deituta, San Migel eta Errosarixo jaiak nola ospatu daitezkeen aztertu eta adosteko bilera irekia egingo da uztailaren 7an, Santa Ana antzokian, 18:00etan. Ekitaldi ezberdinak antolatu ohi dituzten eragileak edota proposamenak aurkeztu nahi dituzten herritar guztiak daude gonbidatuta bileran parte hartzera.

'Oñatiko emakumeak' berrargitaratuta



lazko azaroan argitaratu zuen Josefe Diaz de Tuestak 'Oñatiko emakumeak' argazki eta testu liburu berezia. Oñatiko 35 emakume agertzen dira bertan, familia bereko eta belaunaldi ezberdinetakoak (birramama, amama, ama eta alaba), beraien bizipen, sentipen eta aldarriekin batera. Eskuz josita, modu guztiz artesanalean koadernatutako liburuak dira. Lehenengo argitaraldiko ale guztiak salduta daude eta, orain, bigarren edizioa (100 ale) atera du. Txokolateixan eta Natxo Santos nahiz Nagore Goñi argazkilarien estudioetan eskura daiteke 35€tan.

Lizargarateko Eguna mantendu egiten da

Lizargarate Trikitzale Elkar-teak jakinarazi duenez, Lizargarate Eguna ohi bezala ospatzeko asmoa du, osasun egoerak okerrera egiten ez badu behintzat. Abuztuaren 30ean izango da aurten.

MÁSMÓVIL

* Yoigo eta Orangeren estaldura

ZUNTZA 100 MB + MUGIKORRA 10 GB
+ DEI MUGAGABEEKIN
+ LINEA BAT GEHIGARRI DOAN 1GB
DEI MUGAGABEEKIN
+ LINEA FINKO BAT

39,90€ HILEAN
* BEZ barne

BETIRAKO!!

Ordenagailu eta telefonoen salmenta eta konponketa
Web orriren diseinua eta mantentzea
Sareak
Zibersegurtasuna
...

**DOAKO AHOLKULARITZA TEKNIKA SOILIK
LIZKER-EN EGINDAKO LINEA GUZTIETAN**

66 GB doan
IRAILAK 15 ARTE

20 GB +
DEI MUGAGABEA
14,90€ HILEAN
* BEZ barne

finetwork
* Vodafoneen estaldura

10 GB +
DEI MUGAGABEA
10,90€ HILEAN
* BEZ barne

PERMANENTZIARIK GABE

Atzeko Kale 32 Behean | T. 607 903 435 | aitor@lizker.com | www.lizker.com

guuk

llamaya* pepephone REPÚBLICA MÓVIL DIGI

LIZKER
INFORMATIKA



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

SUBJEKTU POLITIKOA IZATEA

Beñi Agirre, idazle eta historialaria

Telebistako solasaldi batean entzun nion emakumezko bati: “emakumea subjektu politikoa da”. Baieztapenak ez du gainditzen logika formalaren eta gaiari buruzko konbentzio orokorren formulaziorik. Ez du logikarik pentsatzea Cayetana Alvarez de Toledo subjektua dela emakumezkoa delako eta Joseba Asiron ez, gizonezkoa izatea tokatu zaiolako.

Beste kontu bat litzateke “feminismoa subjektu politikoa da” esango bagenu. Feminismoa gizartea eraldatzeko jendarteko mugimendua bezala hartuta. Kasu honetan, Asiron (eraldaketa horretako ere partaidea delakoan) subjektua litzateke eta Alvarez de Toledo estatu quoren (Herrien estatu-zapaltzaile eta patriarkalaren partaide) defendatzaileen aldean legoke.

Herri bat, itoarazten duten kultura eta hizkuntzaren defendatzaileak, estatu-nazioaren injustizia sufritzen dutenak eta abar, ahalduntzen direnean bihurtzen dira subjektu politiko. Euskaraz egiten dutenak, ikasi eta erabiltzen dutenak, elebakartasun gaztelarraren (frantzesaren) aurrean ahalduntzen direnean “subjektu kolektibo eragile” bihurtzen dira. Bai, euskaldunok ere, euskaraz egiten dugunok ere, subjektu politiko gara.

Oharra: ez nahastu subjektu politikoa izatea “botoa” eman ala ez ematearekin.

ANIZTASUNA ETA BATASUNA PENTSIODUNEN ARTEAN

IKUSPUNTUA. Maria Serrano eta Jose Maria Uria, Azkarate-Gipuzkoako Pentsiodunen Mugimenduko kideak

Pandemiak jota zendu diren pertsonak milaka izan dira. Horietako bakoitza desira, amets eta itxaropen ugariz osatutako bizitza bat zen. Eta bizitza bakoitzak gure maitasunezko oroitzapenik beroena merezi du. Bizirik jarraitzeko zoria dugunok nola edo hala pentsiodunen kolektiboaren duintasuna babesteko obligazioa dugu. Horregatik, inoiz ez bezala, bultzatu egin behar ditugu osasun publikoa eta erresidentzia egokiak izatea, non bertan pertsonen bizitzak negozioaren gainetik egongo diren.

Pandemiak pentsiodunen mugimendua eta aldarrikapen agenda ere hankaz gora jarri ditu. Eszenatokia aldatu egin da, batez ere, segurtasun eta osasun publikoari lotutako alorretan. Atzo bertako energia ezin da berreskuratu, mugimendua bera berreskuratzeko prozesu bat izan ezean: bilerak, kontaktuak, harremanak, kontzentrazioak eta planak.

Hortaz, daukagun egoera aintzat hartuta, honako hauek errespetatu beharrean gaude: denborak, abiadurak, beldurrak; hau da, pentsiodunen mugimenduan egon daitezkeen iritzi guztiak. Era berean, garrantzizkoa da tarte edo distantzia ezartzea oinarririk gabeko kritika, deskalifikazio eta mesfidantza sor dezaketen jarrera guztiekiko. Erakunde bakoitzak, plataformak nahiz elkartek, jarraitu beharreko ibilbidea ezarri dezatela, helburua izan dadin etorkizun hurbilean urrunean baino lehenago elkar ikustea berriro. Jarrai ditzakegun bideak anitzak dira, eta, horregatik, guztiak errespetatu behar ditugu akordiorako eskua luzaturik eta beti prest. Azken asteotan, hain zuzen ere, gure artean aniztasun handia erakutsi dugu: pentsiodunen mugimenduaren hainbat sektore instituzioen aurrean mobilizatu gara, zuhurtasunez eta segurtasunez, eta beste batzuek ezegokitzat eta arintzat jo dute hori guztia.

Urtarrilaren 30ean gertatu bezala, mugimenduaren aniztasuna nabarmendu nahi izan da, besterik ez. Hori inondik inora ere ez da


Mekalki
S. Coop. **mekanizatuak**

Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



Goiztiar ibiltzearen abantailak

 Ohetik jeikitzea kosta egiten zaigu askotan baina naturak, goiztiar ibiltzen direnentzat opari ederrak eskaintzen ditu ordu hauetan. Alboko erretratua da horren adibidea. Goizeko seiak inguruan horrela esnatu zitzaigun Urkuluko urtegiko ingurunea, duela egun gutxi.



AITOR OTXOA

zatiketatzat hartu behar. Izan ere, denok batera, pentsiodunok, mobilizazio ugari gauzatu beharko ditugu.

Pandemiak argi utzi du pentsiodunen mugimenduarentzat denborak balio handia duela. Orain eta hemen bizi gara, eta orain bertan behar ditugu pentsio duinak, XXI. mendean aukera emango digutenak gizaki gisa bizitzeko. Pentsiodunen mugimendua 65 urtetik gorako jendearekin osatzen da, eta berebiziko premiak ditu. Eta adierazi nahi dugu, politikaren erdigunearan soilik pertsonak jarri gero, eta bereziki emakume pentsionistak, borondate politikoa izanda eta baliabideak bideratuta konpondu ahal izango dugula 1.080 euroko pentsio minimoaren afera.

Pentsiodunen mugimendua solidarioa da gehien behar dutenekin; pentsio minimoak izan eta prekaritate lotsagarriean bizirik irauten dutenekin, alegia. Alargundutako emakumeak dira, pentsiodunak, KPIren arabera adierazleekin bizi ezin direnak, beren abiapuntua pentsio lotsagarri bat delako eta ez delako ezertxo ere konpontzen. Ez dugu entzun nahi, gerrikoa estutu behar delako, zama betikoengana bideratzen dutenen ahotsa.

Era berean, zenbait ahotsek aholkatzen digute gure aldarrikapenak garai hobe batzuetarako uztea. Zehaztu gabeko gero baterako. Horie esan nahi diegu estatu espainiarrean egun 30.000 milioi eurotik gorako iruzurra egiten dela. Eta gaineratu nahi dugu banketxeek gizarteari 65.000 milioi euro zor dizkiotela. Dirurik badago ala ez? Nork du diru hori? Zergatik ez dituzte behartzen espainiar aberatsak paradisu fiskaletan duten 140.000 milioi euroko dirutza estatura ekartzera? Dirua egon badago, eta galanki.

Gure kolektiboaren aldarrikapen zehatzak babesteaz gain, badira beste premiazko aldarrikapen batzuk agerian geratu direnak, COVID-19aren larrialdi soziosanitarioarekin batera. Horiek lotura estua dute ongizate gizartearekin; adinekoengan ondorio latzak izan dituzte, eta, bereziki, adinekoen egoitzetan. Honako hau aipatu nahi dugu: osasun publikoa eta kalitatezko sare soziosanitario bat babestea. Izan ere, ezaugarri horiek defendatu eta babestu behar ditugu herritarren beste sektore batzuekin batera, herritarren bizitza eta duintasuna zaintzeko.

Immanuel Kantek zioenaren arabera, «ezin da duintasunik izan, publikotasunik gabe».

Batasuna da, eta izango da, gure jomuga, gure bidea. Nahiz eta egiatan beti ez den erraza izaten. Azken asteotan ikuspuntu eta sentikortasun ezberdinak agertu dira. Berrito elkarrekin topo egiteko beharrezkoa da aniztasuna erabat onartzea, gaitzespenik gabe.

Bestalde, pentsiodunen sektore batzuk plazetan agertzen ari gara, zuhurtasun handiz eta osasun segurtasuneko neurriekin. Madrileko gobernua gogoan hartuta joaten gara plazetara, baina baita euskal instituzioak ere, izan ere, konbentziturik gaude euskal gobernuak baliabideak badietuela pentsioak osatzeko moduan, duintasunik ez duten pentsioen bidegabekeria zuzentzeko. Gaur egungo Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) tresna baliagarria bada ere pertsona zaurgarrienak atenditzeko, ez da guk eskatzen dugun neurrian baliagarria pentsioak osatzeko. Horregatik, beharrezkoa da aldatzea. Kontua da borondate politikoa behar dela.

Horrez gain, PSOE/Unidas Podemos gobernuak iragarri du legegintzaldi honetan onartuko dela 1.200 euroko gutxieneko soldata. Horrek argi erakusten du gutxieneko pentsioa 1.200 eurokoa izatea ez dela astakeria, zentzuzko diru-kopurua baita.

Legeak ahalbidetzen du eskatzen ari garena bideragarria izatea. Era berean, Diru Sarrera Bermatzeko Errenta (DSBE) borondate politiko baten emaitza denez, pentsioak 1.080 euroraino osatu daitezke eta osatu behar dira. Diru kopuru hori Europako Gutun Sozialak aholkatzen du, hala nola, Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 102 eta 128 hitzarmenek. Halaber, kontua da konstituzioa bera ere bete egin behar dela. 50. artikuluan zera adierazten da: «Botere publikoek, dagozkien pentsioak aldika gaurkotuz, zahartzaroan garantizatuko diete hiritargoari behar-beharrezko ekonomia».

Pentsiodunen artean izan den bat ez etortze puntual hori bizitzaren beste atal bat da. Ziur gaude berrito guztiok elkarrekin egongo garela. Azken batean, beharrak eta balioak partekatzen ditugu.

Berria egunkarian argitaratua, ekainaren 18an.

HEMEROTEKA

ESKOLARIK GABE, EUSKARARIK GABE

Berria egunkarian argitaratua, ekainaren 6an.
Egilea, Garikoitz Goikoetxea

Eskolaren hutsuneak eta iritsezinak nabarmentzen dira maiz: ez dela gai ikasle askoren gutxieneko euskara gaitasuna ziurtatzeko —azken urteetako ikerketek atzerapausoa erakutsi dute—, euskal kulturaren transmisioan arazoak daudela, erdararako joera dutela ikasleek eta irakasleek... Badira hutsuneak, baina aitortzekoa da eskolak zer ekarpen egiten dion euskararen indarberritzeari: euskara ikasteko lekua ez ezik, erabiltzeko eremu bakarretakoa da milaka ikaslerentzat. Panorama zaila ekarri du itxialdiak: irailera arte behintzat ez dira eskolara bueltatuko ikasle gehienak, eta udaleku asko airean daude. Hots, arrisku handia dago ikasle askok sei hilabetean euskarazko ahozko harremanik apenas izateko. Galera handia da.

Euskal Herriko ikasle gehienek jasotzen dute euskarazko eskola, eta hortik ari da hazten euskararen ezagutza —25 urtetik beherako euskal herritar gehienek badakite euskaraz—. Erabileran ere eskola da erreferentzia: euskaraz gehien egiten den esparrua da. Arrue ikerketak aztertuta du Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako eskola umeen hizkuntza erabilera, eta argia da joera. Hara Lehen Hezkuntzako laugarren mailako ikasleen erabilera: eskolan, %59 —ikasleen arteko erlazioak barne; irakasleekikoak bakarrik hartuta, %80—; eskolaz kanpoko ekintzetan, %41; etxean, %29; lagunekin txatean, %27; eta komunikabide eta kultur kontsumoan, %18.

Hain justu, gaztetxoek euskaraz gehien egiten duten eremuak geratu dira egunerokotik kanpo, eta errealtate bat agerian jarri da inoiz baino argiago: ezinbestean eragin behar dela

irakaskuntzatik kanpoko esparruetan, eskola ez dadin uhartea izan. Itxialdiak erakutsi du, adibidez, ikus-entzunezkoetan zer hutsune daukan euskarak: kontsumoa nabarmen ugartu da etxealdiarekin, baina zer hizkuntzako edukietara jo dute milaka euskaldunek?

Ikusita sei hilabeteko etenak nola eragin dezakeen gazte-txoeren erabileran eta gaitasunean —erabilerarik ezak gaitasunari eragiten baitio—, egitasmo interesgarria jarri dute martxan Bilbo inguruan: boluntario sare bat osatu dute, eta etxekide erdaldunak dituzten umeekin solasaldiak egiten dituzte euskaraz. Mintzalagunaren gisako planteamendua du oinarrian: euskaraz eroso moldatzen denak laguntza ematen dio ikasten ari denari, erabileraren bidez —erabilerak gaitasunari eragiten baitio—. Arrakasta izan du: guraso erdaldunak dituzten 450 ume ari dira parte hartzen.

Momentuko urgentziari aterabidea ematetik harago, bide interesgarriak ireki ditzake martxan jarritako ildoak. Batetik, umei eta gaztetxoei begira, euskararekiko irudia aldatzeko: erabat eskolari eta irakasleei lotuta ikusten dute euskara milaka ikaslek, ikastetxetik kanpo ez baitaukate euskararik inguruan. Alde horretatik, abiapuntu egokia da elkarrizketa informagoak euskaraz izateko aukera edukitzea irakasleak ez diren beste heldu batzuekin, eta bereziki ahozko erabilera lantzea. Eskolaren osagarri egokia da. Horrekin batera, oinarria jar dezake euskarazko sareak eta erlazioak bultzatzeko, sakabanatutako euskaldunak elkartzeko.

Bestetik, guraso erdaldunen rolari dagokionez da interesgarria egitasmoa. Erronka bat izan ohi da aita-ama horiekin: badaukate interesa seme-alabek euskara ikas dezaten, euskarazko eskolara bidaltzen dituzte, baina ez dute kezka bera erabilerarekin. Eskutik lotuta doaz, ordea, gaitasuna eta erabilera, eta ezinbestekoa da gurasoei hori ikusaraztea.

Hainbeste aipatzen den aktibazioa lortu dute Bilbo aldeko egitasmoarekin: euskaltzale boluntarioen sarea osatu dute, guraso erdaldun ugariengana iritsi dira, eskolaz haragoko eremu bati heldu diote. Eta erabilera dute ardatz.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com



Gure ekintzen berri emango duen atala...

Udako zaintza hezitzaile zerbitzua 2020

2020ko uztailan kokatu eta azken hilabeteetan pasatako testuingurua kontuan izan dugu Udako Zaintza hezitzaile hau antolatzerako uanean. Inoiz baino gehiago, guztiok baina konkretuki haurrek jasan duten eta jasaten ari diren eskubide urraketaz kontziente izango gara eta hitza emango diegu zerbitzu honetan. Pandemiaren haratago, horrek eragin duen guztiari heltzen eta erantzuten saiatuko gara, guztia gozamenetik eta haurren garapen integrala oinarri izanda.

Nola eta zeinen ikuspegitik eraiki da, beste behin ere pandemiako egoera? arauak?... Helduak egon gara zentroan.

Aniztasunetik eta norbanakotik, aisialdi berria eraiki eta gozatuko dugu. Koordinatzaile, hezitzaile, familia eta batez ere haurrentzako zerbitzua izan behar da. Guzti horrek erantzukizun eta elkarlan handia ekarriko du, komunikazioa giltzarri garrantzitsua izango dugu horretarako zerbitzuak irauten duen egunetan. Elkar zainduko gara, zaintzari dagokion garrantzia emanda.

Ez da erreza izan zerbitzu honi forma ematea. Egoera kaotiko honek hankaz gora jarri zuen hasierako ohiko udaleku formatua eta geroztik zalantza betetako zurrunbiloan ibili gara koordinazio taldea eta baita udala ere. Erakunde ofiziale-tatik heldutako informazioa ere nahasia eta berandu etorritakoa izan da, eta horrek asko zaildu du aurre prestaketa guztia. Horregatik herritarrok ere ondorioak jasan dituzue.

Hala ere uztailaren batean hasiko den zaintza zerbitzu hezitzaile honi maitasunez eta gogoz helduko diogu. Familien kontziliazio egoeran laguntzeko eta haurrei merezitako uztaila eskaintzeko.

Oinarrian landuko ditugun balioak, euskara, tratu onak, hezkidetzak, emozioak, natura eta kalea gureganatzearen eta errespetatzearen garrantzia, parte hartzea, eta aniztasuna izango dira. Guztia Jolasa oinarri hartuta.

Beti ere momentuko segurtasun eta higiene irizpideak aintzat hartuko ditugu. Beharrezko material eta baliabideak eskura izanda. Hezitzaile eta koordinatzaile lantaldeak COVID-19aren gaineko beharrezko formazioa jasoko dugu, eta beharrezkoa diren protokolo eta errutinak barneratuko eta familiei helaraziko dizkiegu.

Baldintza berrietara egokitzeko Jolas edota baliabide bildumatxo bat egin dugu, ohiko jolasak moldatuz eta behar berrietara egokituz. Hala ere haurrek ere zer esana izango dute eta sormena erabiliz beraiekin ere jolas berriak sortuko ditugu.

Oñati gestio heziketa

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Matrikulazioa

Uztailaren 13tik 17ra

Eskaintza akademikoa	
OÑATI GESTIO HEZIKETA	MGEP
<ul style="list-style-type: none"> •Administrazioa eta Finantzak •Zuzendaritza klazkaritza •Salmenta Kudeaketa 	<ul style="list-style-type: none"> •Automatizazioa eta Robotika Industrialia •Sareko Informatika Sistemen Administrazioa •Fabrikazio Mekanikoko Diseinua •Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa •Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/ogh
rigarza@mondragon.edu
943 71 80 09

www.mondragon.edu/gmh
onarpna.lhm@mondragon.edu
664 298 704 · 664 298 683

Euskaltegia etorri berriak hartu guran

Euskaltegian ibili diren lau lagunekin izan gara, etorri berrien errealitatea hobeto ezagutu eta hizkuntzaren aldetik dituzten beharrei hobeto nola erantzun dakiekeen jakiteko asmoz



Abdalahi (Sahara), M^a Victoria (Kolonbia), Luis (Paraguai) eta Patricia (Paraguai) euskara ikasten ari dira udal euskaltegian

Euskal Estatistika Erakundeak (EUSTAT) emandako datuen arabera, Oñatin 2019an 11.355 pertsona geunden erroldatuta, horietatik 851 lagun (%7,49) kanpotik etorriak. Inondik ere, bada kopuru esanguratsua eta kontuan hartzeko modukoa! Haien jatorriari begira, esaten digu 51 estatutakoak direla, eta hanka sartzeko beldurrik gabe esan daiteke herrian euskaraz gain, beste hamaika hizkuntza ere berba egiten dela, benetako Babelgo dorrea bertan osatuz. Hiztun kopuru handienak, hurrenez hurren, gaztelaniak (Espainiakoa eta Ameriketako aldaera guztiak), arabierak, urduak, ingelesak, portugesak, errumanierak, txinerak, eta Afrikako hizkuntzek dituzte.

Ehunekoetan emanda, hauek dira etorri berrion jatorria handitik txikira: Espainia (%2,88), Amerika (%2,27), Europa, ekialdea barne (%1,17), Afrika (%0,77), eta Asia eta Ozeania (%0,36)

Multzo hau osatzen duten pertsonak, oro har, oso gazteak dira, hemengo gizartearen batez bestekoaren aldean oso gazteak esango genuke; beraz, lan egiteko eta gizarte honi aberastasun handia ekartzeko sasoian daudenak. Kulturaz edota erlijioz, oso familia ugariak sortzen dituzte eta gure zerbitzu —taberna eta ostatuetan, batez ere— eta etxeko zaintza-lanetan dabilta lanean, orduka edota barneko langile. Dena dela, askok eta askok behin-behineko lanetan dihardute, edota langabezia daude.

Ikusten denez, talde hau garrantzitsua da oso. Gu aurten euskaltegian ibili diren lau la-

Catalana Occidente **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz
"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei iezaguzu".

gunekin egon gara: Paraguaiako Patricia eta Luisekin, Saharako Abdalahirekin eta Kolonbiako M^a Victoriarekin, haien bidez etorri berrien errealitatea hobeto ezagutu, (zein diren, zer behar duten, nola moldatzen diren...) eta hizkuntzaren aldetik dituzten beharrei hobeto nola erantzun dakiekeen jakiteko asmoz. Hona haien testigantza:


TESTIGANTZAK

Denbora gehien daramana Patricia da, bi urte eta erdi, eta gutxien, berriz, M^a Victoria, oraindik sei hilabete bakarrik darama eta. Abdalahi ez da etorri bere kabuz, CEARen bidez baizik. Larraña aterpetxean bizi da, eta ez daki noiz arte geratuko den gure artean, nahiz eta ikaragarri gustatzen zaion gure herria eta maiteminduta egon hemengo paisaiatz.

Gainerako hirurak aurretik hemen zegoen norbaiten bitartez iritsi ziren gurera, ez ziren, besterik gabe, zoro-zoro etorri hona; bi emakumeen amak, esaterako, hemen ziren lehendik eta etortzeko gonbita egin zieten, hemen aurrera egiteko bidea zegoela iritzita. Luisek, berriz, lagunaren bat bazuen hemen eta hark esanda iritsi zen Oñatira.

Denek erabaki zuten euren herriatik irtetea zer edo zer hobea topatu guran; diotenez, euren herrietan lana eta jatekoa izan arren, hango bizi-baldintzak, egoera sozio-politikoak, ziurtasunik eza, bizi-proiektu bat aurrera eramateko ezintasuna, norberaren maila soziala hobetzeko aukerarik eza, matxismoa, beroa eta abarrek irtenarazi zituzten handik, bizi-kalitate handiagoa eta euren seme-alabentzako etorkizun oparagoa bilatzeko asmoz.

Iritsitakoan, izugarri harritu zituzten jendearen jatorriak eta adeitasunak, bakeak, herriko plaza umez josita ikusteak, paisaiak, aspaldiko etxeak eta beste hizkuntza ezezagun bat entzuteak ere, ordura arte gehienontzat, behintzat, existitzen ez zena, hau da, Euskal Herriko



hizkuntza, euskara, alegia. Hala ere, denak ez ziren samurtasunak izan: etxebizitza topatzea izan zen lehenengo oztopoa, herriko zerbitzu guztietako langileak ere ez ziren izan gurako litzatekeen bezain abegitsuak eta amultsuak, bakarren batzuegan jarrera hotzak eta arrotzak nagusitu baitziren.

EUSKARA IKASTEKO ARRAZOIAK

Aldeko giroak lagunduta eta hainbat arrazoi tarteko, hala nola, jendearengandik hurrago egoteko gogoagatik, bertako berri izateagatik, bizi maila hobetzeagatik, seme-alaba txikiei lagundu eta bertako beste bat izan gura izateagatik izena eman zuten euskaltegian ikastaro labor bat hartzeko asmoz. Esperientzia ona izan zen, euren egoeran zegoen jende berria ezagutzeko beta emateaz gain, hizkuntzaren lehenengo nozioak eta berbak ezagutzeko balio izan zien eta. Ikastaroa amaituta, euskararen hotsak eta hainbat berba ezagutzen zituzten eta hizkuntza hau ez zuten arrotz sentitzen, jadanik hainbat molde eta doinu bereizten baitzituzten. Eta, gainera, inguruan zituzten harremanen bidez ikasitakoa praktikan jartzeko pausoak eman zituzten, neurri batean behintzat. Patricia Ikusi du bi urteren buruan euren alaba euskaraz mintzatzen dela naturaltasun osoz eta harentzat bere hizkuntza dela, horrek guztiak ikaragarri pozten du. Baita ere konturatzen dira euskara pittin horrek ateak zabaltzeko balio diela, hemengo jendeak egindako ahalegina eskertzen diela eta, aldi berean, laguntzen.

Eta ez lukete dakiten apurrarekin gelditu gura, pauso gehiago eta tinkoagoak emateko prest daude, daukaten helburu pertsonalak lortzeko edo hemengoekin batera euskaraz bizitzeko, hizkuntza dela-eta, markatuak edo berezituak sentitu gabe. Hemengo parte izan gura dute, eta horretarako euskara ikastea ezinbestekoa dela ikusten dute.

ORDUTEGI ZABALAGOAK

Hori lortzeko, baina, beharrezko ikusten dute euskaltegiak ordutegi zabalagoak eskaintzea euren laneko ordutegiarekin ezkontzeko, gutxienez bi ordutegi egotea egoki ikusiko lukete, bata goizekoa, tabernari eta ostalarientzat, eta bestea bazkalostekoa, etxeko zerbitzuetan dabilzantzat. Mailak maila eta ezberdintasunak ezberdintasun, garbi daukate behin taldea sortuz gero, taldearen izaera indartu behar dela eta talde bezala funtzionatu behar dutela, atzean gelditzen denari lagunduz eta denon artean aurrera eginez. Bakarkako lana edo ariketa gramatikal piloa askorentzat beldurtzeko arrazoiak izan litekeela diote, etorri berri askok ez dutelako euren herrian oinarritzko heziketak izan, eta horrek ikasketa prozesua burutzeko eragozpen edota traba handiak dakartzalako.

Dena dela, arazoak arazo, eurentzat euskara ikastea hezkuntza eskaintza bat egon behar dela garbi ikusten dute, gure hizkuntza jakitea hemen bizitzeko laguntza handia delakoan baitaude. Horretarako, udalari eskatzen diote publizitatea gehitzea eta eurak pasatzen diren leku guztietan —Zerbitzu sozialak, Caritas, udaletxea, ambulatorioa, ...— euskaltegiaren ikastaroen informazioa egotea eskura, eta aurretik esandako moduan, ordutegi bat baino gehiago ipintzea eskolak hartzeko. Azken finean, euskaltegiko koadrila osatu gura dute, lagunak egin, jendea ezagutu, bertako beste bat izan ... euskara bidelagun hartuta. ■

» **EUSTATen datuen arabera, Oñatin 2019an 11.355 pertsona zeuden erroldatuta, horietatik 851 lagun (%7,49) kanpotik etorriak**

» **Hemengo parte izan gura dute, eta horretarako euskara ikastea ezinbestekoa dela ikusten dute**

» **Etorri berri askok ez dute jaso oinarritzko heziketak sorterrian eta hori eragozpen handia da ikasketa prozesua burutzeko**

» **Beharrezkoa ikusten dute Euskaltegiak ordutegi zabalagoak eskaintzea, euren laneko ordutegiekin ezkondu ahal izateko**

OÑATIKO MOTORZALEENDAKO **Rally birtualak**

► **Richard Burns Rally** bideojokuan erabili ahal izateko Oñatiko pilotuen kotxeak diseinatu ditu Sergio Gilek



Goiko argazkietan ikus daitekeen bezala, Oñatiko pilotu ezberdinen kotxeak diseinatu ditu Gilek.

munduko
bizikleta fabrikatzaile handiena den
GIANT markako
 bizikleta elektrikoak
 969 eurotik aurrera





BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK
oñabike.com Otadui 25, Oñati
 Tel.: 943 78 05 65



Motorzalea, argazkilaria eta diseinugilea da Sergio Gil, eta bere afizioak uztartuz, RBR bideojoku ezagunerako kotxeak diseinatu ditu COVIDak eragindako etxealdiak emandako denbora baliatuz

Bizikleta estatikoak bakarrik ez; ganbaran gordeta genituen bideojokoak ere berreskuratzeko aukera eman digu konfinamenduan. Horixe egin du Sergio Gilek; bolantea eta bestelako gailuak ordenagailura konektatu eta *Richard Burns Rally* (RBR) simulatzailean adrenalina asartzeko modua izan du Covid-ak eragindako etxealdian. "Benetako karrerarik ezean, zelabait ase behar barruko harra" dio berak.

Baina ez hori bakarrik. Motor usaina darien kirolen zale

amorratua izateaz gain, rallyetan espezializatutako argazkilaria eta diseinugilea era bada Sergio, eta, hala, konfinamenduan izan duen denbora libre baliatuz, bere zaletasunak uztartu eta RBR bideojokorako kotxeak diseinatu ditu, herriko zenbait piloturen turismoetatik abiatuta.

"Kopilotu moduan ibiltzen naiz rallyetan, Unai Arregirekin, eta pentsatu nuen polita izango zela RBR bideojokoa jokatzeari gure karreretako Seat Ibizarekin, eta, gainera, neu gidari!".

Halaxe hasi zen, denbora

pasa, eta, poliki poliki, herriko beste hiru piloturen kotxeak (Mikel Altunaren *Ford Focus*-a, Asier Mugarzaren *Renault Clio*-a eta David Ardionsen *Mitsubishi Evo VII*-a) ere prestatu ditu RBR jokorako. "Altunaren eta Mugarzaren benetako kotxeen dekorazioa ere neuk egindakoa da eta, beraz, errazagoa izan da moldaketa". Aipatutakoez gain, Iñaki Alberdi, euskal zirkuituan dagoen piloturik ikusgarrienetakoaren *BMW M3*-a eta *Porsche GTE*-a ere prestatu ditu Gilek. Bere *facebook*-eko orrian (rallyak.eus) eskura daitezke Gilek diseinatutako kotxeen plandakak, RBR jokoan erabili nahi dituen edonorentzat.

RICHARD BURNS RALLY

Rally karreretako simulatzaile bat da RBR izenez ezagutzen den bideojokoa, eta jada urtetxo batzuk dituen arren, merkatuan den simulatzaile errealistenetako eta onenetako bat da. Erabiltzaile komunitate sendoa eratu da bere inguruan, eta hauek sortutako *plugging* eta hobekuntzei esker jokoa eguneratuta dago, zirkuitu, kotxe eta aplikazio berriei. ■

Kirol egokituko saila sortu du Antxintxika Triatloi Taldeak


Kirola osasun iturri bihurtzea. Horixe da Antxintxika Triatloi taldeak sortu duen kirol egokituko sailaren helburu nagusia. Kirola egiteak dakartzan onura fisiko, psikologiko eta sozialen jakitun, arazo fisiko edo psikikoak dituzten pertsonen kirola egiteko aukera eman nahi diete. Aurten 20 urte betetzen dituen Antxintxika Triatloi Taldeak betidanik izan du sentsibilitate berezia kirol egokituarekiko, eta orain urrats sendoa eman dute sail hau sortuta.

Saileko arduradun Aitor Rementeriak eskerrak eman dizkie proiektu hau aurrera ateratzeko modu batera edo bestera lagundu duten enpresa, denda, taberna eta herritar guztiei. Iazko udazkenean antolatu zuten zozketa bultzada handia izan zela onartu zuen, bai ekonomikoki eta baita sentsibilizazio mailan ere, eta bide horretatik jarraituko dutela esan dute, erakundeen eta gizartearen inplikazioa sustatzen.

Tamalez, ezin izan dute oraindik lehiatu, Covid-aren ondorioz bertan behera geratu direlako lehiaketa gehienak, baina ilusio handiz ari dira entrenatzen, eta hurrengo denboraldian ikusiko dugu LANA-Antxintxika taldearen maillota lehiaketetan.



Aitor Rementeria, saileko arduraduna, Joseba Azkarate, Igarki Pascual eta Ruben Viso taldekideekin



TERTULIXAN

irakurtzearen esperientzia partekatuz

Liburutegi publikoek aspaldi utzi zioten liburu eta apalez betetako eraikin soil izateari. Kultur gune biziak izatea da, gaur egun, helburua eta erronka; irakurzaletasuna eta sormena sustatuz, gizarte aske, informatu eta kritikoa osatzen laguntzea. Eta horren adibide argia da Oñatiko udal liburutegia. Azken hamar urteotan hainbat ekimen jarri ditu abian helburu berarekin: topaguneak eskaintzea herritarrei, literatura ardatz hartuta beraien ikuspuntu eta iritziak partekatzeko.

Tertulixan izeneko irakurle taldeak dira horren erakusle. Gaur egun hiru talde daude liburutegian, gaztelaniazko bi eta euskarazko bat; 80 bat lagun guztira. Hilero elkartzen dira, taldeko gidari edo dinamizatzaileak (Iván Repila eta Yurre Ugarte idazleak) proposatutako liburuari buruzko hausnarketa eta gogoeta egitera. Liburutegia arduratzen da taldekideentzako liburuak lortzeaz, eta, tarteka, idazleak gonbidatzen dituzte bertatik bertara solasean aritzeko. Oñatiko *Tertulixan* taldeek zortzi urteko ibilbidea egin dute jada.

Helduentzako hiru irakurle talde eta idazketa lantegi bat daude gaur egun udal liburutegian

Beste irakurle talde bat ere bada liburutegian, literatura eta psikologia uztartzen dituenena. Nobelak irakurriz, kezka sortzen diguten eta gure eguneroko bizitza baldintzatzen duten psikologiako gai edo kontzeptuak lantzea da helburua. Bigarren urtea osatu du taldeak eta poliki poliki sendotzen ari da Silvina Fondra psikologoaren gidaritzapean.

Gogoratu, bestalde, duela hiru urte literatur tailer bat egin zela (Irene Gantxegik gidatuta) indarkeria politikoak Euskal Herrian eragindako biktimen inguruan gogoeta egiteko. Gazte-nerabeen irakurle taldeak sortzea da udal liburutegiaren hurrengo erronketako bat. Egin dira saiakera batzuk, baina arrakasta handi barik, oraingoz.

Irakurle taldeez gain, idazketa lantegia ere jarri zen martxan liburutegian duela bi urte, Joxe Mari Iturralde idazleak gidatuta, eta hau ere egonkortuz doa.

Udan atsedenaldea hartuko dute guztiek, baina udazkenarekin batera itzuliko dira irakurle taldeak eta idazketa lantegia. Animatzen bazara, eman izena udal liburutegian.

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

IVAN REPILA Gaztelerazko Tertulixan taldeetako gidaria

» Irakurle zorrotzak dira Oñatikoak, eta neuk ere asko ikasten dut saio bakoitzean



Gaztelerazko bi irakurle talde daude egun udal liburutegian, eta Iván Repila (Bilbo, 1978)

idazle eta editoreak gidatzen ditu. Oso gustura dagoela aitortu digu. "Ni hasierako, taldeak bazuen bost urteko esperientzia tertuliak egiten, eta beti esaten dut oso talde parte hartzailea eta exigentea dela; irakurketa eta gogoeta zorrotzak egiten dituzte eta nik neuk ere asko ikasten dut beraiengandik. Saio oso dinamikoak izaten dira eta konturatu orduko joaten zaigu denbora".

Irakurtzearen esperientzia partekatzea gustatzen zaion pertsona oro animatzen du Ivanek Tertulixan saioetan parte hartzera. "Partekatzezko, komentatzeko eta debaterako gune bat da hau, eta jarrera egokiarekin hurbiltzen bazara, asko ikas dezakezu, ez nik esango dudanagatik bakarrik, baizik eta, batez ere, gainerako taldekideen iritzi eta gogoetak entzunda. Irakurketa bera ez ezik, liburu batek gauza gehiago ematea nahi baduzu, hauxe da aukerako gunea".



Goian, Tertulixan saio bateko irudia. Ezkerrean, Jose Ignacio Carnero idazlearekin egindako tertulixa saioa. Behean, Yurre Ugarte euskarazko Tertulixan taldeko gidaria Beñat Sarasola idazlearekin



YURRE UGARTE / Euskarazko Tertulixan taldeko gidaria

» Ia beti bukatzen dugu literatura eta bizi gaituen errealitatea lotzen, eta oso aberasgarriak izaten dira saioak



Yurre Ugarte (Tolosa, 1965) idazle eta gidoilaria da euskarazko Tertulixan taldeko dinamizatzailea azken hiru urteetan. "Irakurle talde batera datorren jendeak badu jakin mina literaturarekiko eta, beraz, gozamina da halako talde baten gidari izatea eta liburu batek eragin dizkigun iritzi eta ikuspuntuak partekatzea. Gainera, ia beti bukatzen dugu literatura eta bizitza edo bizi gaituen errealitatea lotzen, eta oso aberasgarriak izaten dira saioak. Oñatiko irakurle taldeak urteak daramatza literatur tertuliak egiten, eta aitortu beharra daukat ekarpen interesgarriak eta aberatsak egiten dituela jendeak". Irakurtzea gustuko duen edonor animatzen du Yurrek Tertulixan saioetara. "Ez dadila inor beldurtu. Hau ez da txapa teoriko bat, liburu baten inguruko ikuspuntu ezberdinak ezagutzeko bilgunea baizik, eta hori sekulako aukera da. Hona gozatzera eta ondo pasatzera etortzen gara".

JUANJE MARGOAK
T. 627 818 247

COINBROKER
OÑATI ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS
Arantzazuko Ama Kalea, 9 • 20560 Oñati
943 089 006 oinati@coinbroker.eus
www.coinbroker.eus

SILVINA FONDRA**Literatura eta psikologia
tailerreko gidaria**

» Literaturaren bidez, kezka sortzen diguten kontzeptuen inguruan gogoeta egitea da helbura



Duela bi urte eratu zen Literatura eta Psikologia tailerra Oñatiko liburutegian.

Sortzez argentinarra, baina Oñatin bizi den Silvina Fondra psikologoak gidatzen du taldea.

"Literaturaren narratiba eta psikologiaren diskurtsoaren arteko lotura aurkitzea da gure asmoa. Azken batean, paziente batek zerbait kontatzen digunean ere, istorio bat kontatzen digu, bere istorioa".

Nobelak irakurtzen dituzte eta irakurketa horien bidez gai ezberdinak jorratzen: gure jokabideak, nortasuna, emozioak, motibazioa... "Hasi-eran beldur pittin bat nuen, jendeak nola erantzungo ote zuen psikologia bezalako gai baten aurrean, baina esperientzia oso positiboa izaten ari da. Gero eta erosoago gaude denok, eta saioak oso biziak eta parte hartzaileak izaten dira. Azken batean, kezka sortzen diguten eta gure eguneroko bizitza baldintzatzen duten kontzeptu edo gaien inguruan (dolua, maitasuna...) gogoeta egitea da helburua, literatur testuen bidez.



Goian, Psikologiako irakurle taldeko kideetako batzuk. Behean idazketa lantegi edo tailerreko kideak.

**JOXE MARI ITURRALDE / Idazketa lantegiko gidaria**

» Literaturaren mundura hurbiltzea da helburua, baina idazketaren bidez, irakurketara mugatu gabe



Idazketa lantegi edo tailerrak bigarren ikasturtea osatu du udal liburutegian, Joxe Mari Iturralde (Tolosa, 1951) idazlearen gidaritzapean. Esperientzia zoragarria izaten ari dela aitortu digu tolosarrak. "Gutxitan aurkitu dut halako talde jatorra, langilea, balioduna. Oso animatuta nago talde honekin eta, ziurrenera, datorren ikasturte amaierarako, ondo bidean, liburuska bat argitaratzeko asmoa dugu, taldekide bakoitzaren bizpahiru lanekin".

Tailerraren dinamika azaldu digu Iturraldek. "Hiruzpalau astetik behin izaten dira saioak, bi ordukoak. Klasean gai teoriko edo teknikoak (narratzaile motak, kontakizunaren denbora, plano batetik bestera nola pasa, solasaldiak nola tartekatu...) lantzen ditugu denon artean, ariketatxo batzuen bidez, eta, ondoren, hurrengo saiora arteko denbora izaten dute lan luzeagoa edo sakonagoa egiteko. Helburua ez da idazle bihurtzea (inoiz edo behin sortu izan zaizkit), baina bai aurrerapauso bat ematea idazketan. Literaturaren mundura hurbilketa bat egitea, baina praktikoagoa, irakurketara mugatu barik". Ez da dohain edo ezaugarri berezirik behar tailerrean parte hartzeko. "Irakurtzea gustatzea eskergarria da, jakina, baina gogoia da beharrezkoena, eta zabalik dago edonorentzat. Ez dadila inor beldurtu".

**IRAGARRI
ZAITEZ
HEMEN**

publi@onati.eus



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



URMUGA

Mendia eta musika uztartuko dituen zeharkaldia egingo da uztailaren 14tik abuztuaren 1era, Angulo Bortutik Hiru Erregeen Mahairaino, mendiz mendi, musika ederraz gozatuz

Felipe Uriarte mendi gidariak (*Mendiak eta Herriak* elkarte) eta Migel Zeberio musikariak (*Et Incarnatus* orkestra) antolatuta, Euskal Herriko URMUGA zeharkaldia egingo da uztailaren 14tik abuztuaren 1era, Angulo Bortutik Hiru Erregeen Mahairaino, mendiz mendi, musika ederraz gozatuz

Edozein mendizalek izango du zeharkaldia egiteko aukera, osotasunean (19 etapa) eta zatika (astebetekoa, bi astekoa edo asteburukoa). Egun bakarreko jardunaldia osatu eta kontzertuez gozatzera igotzeko aukera ere egongo da, baina ezinbestekoa da izena ematea, Covid-19aren ondorioz zaindu beharreko segurtasun neurriak bete ahal izateko. <https://urmuga.eus> webgunean aurkituko dituzue ekimenari eta izen-ematearen inguruko argibide guztiak.

Trianako jaixak, normaltasun berrian

[OHARRA] Koronabirusaren ondorioz pairatzen ari garen egoera berezi honetan, Trianako jaiak ezingo dira ospatu orain arte ezagutu ditugun eran. Hala ere, Trianako jai batzordea ahalegintzen ari da normaltasun berri honetan ekintza batzuk antolatzen, eta herritarrei egitarau xume bat eskaintzen, beti ere beharrezkoak diren osasun eta segurtasun neurri guztiak bermatuz.

Horregatik auzokide eta herritar guztien laguntza eskatzen dugu, arduraz eta errespetuz jokatu dezaten, ezarritako neurriak bete ezean ezingo baitira antolatutako ekintzak aurrera eraman.

Laster partekatuko dugu aurtengo egitaraua, eta bertan parte hartzera eta gozatzera gonbidatzen zaituztegu! Gora auzoko jaixak!

» ETAPAK

- UZTAILAK 14** Angulo mendatea-Urduña
- UZTAILAK 15** Urduña-Altube mendatea
- UZTAILAK 16** Altube mendatea-Barazar
- UZTAILAK 17** Barazar mendatea-Urkiola
- UZTAILAK 18** Urkiola mendatea-Arlaban
- UZTAILAK 19** Arlaban-Arantzazu
- UZTAILAK 20** Arantzazu-Otzaurte
- UZTAILAK 21** Ozaurte-Lizarrusti
- UZTAILAK 22** Lizarrusti-Azpirotz
- UZTAILAK 23** Azpirotz-Arrarats (Otsola)
- UZTAILAK 24** Otsola Lepoa-Belate
- UZTAILAK 25** Belate-Urkiaga lepoa
- UZTAILAK 26** Urkiaga-Ibañeta
- UZTAILAK 27** Ibañeta-Aizpegi (Orbaizeta)
- UZTAILAK 28** Aizpegi-Burdinkurutzeta
- UZTAILAK 29** Burdinkurutzeta-Bagargia
- UZTAILAK 30** Bagargia-Iturzaeta (Larrau)
- UZTAILAK 31** Iturzaeta lepoa-Eraize
- ABUZTUAK 1** Eraize lepoa-Linza

Etapa bakoitzeko xehetasunak:
www.urmuga.eus

» KONTZERTUAK

UZTAILAK 14, TOLOGORRI MENDIA
Hari laukotea, Maider Zabalegi, Flavio Banterla, Xabi Zeberio eta Amaia Elizaran dantzaria.

UZTAILAK 19, DIMA, BALTZOLAKO KOBAK
Josu eta Gari (Hertzainak taldekoak), Maddi Oihenart, Miren Narbaiza, Et incarnatus Orkestra, Igor Elortza eta Unai Iturriaga. Gorka Benitez saxoan, Itsaso Etxebeste baxuan, Juantxo Zeberio pianoan eta Karlos Aranzegi baterian.

UZTAILAK 20, AIZKORRI
Maddi Oihenart, Juantxo Zeberio, Gorka Benitez. Uztailak 21, Lareo Donostiako orfeioa, Et incarnatus Orkestra, Eneko Dorronsoro trikitia. Gorka Benitez saxoan, Juantxo Zeberio pianoan.

UZTAILAK 22, AIZPEARRO
Donostiako orfeioa, Et Incarnatus Orkestra, Txomin Artola Leire, Kristina eta Leturia, Xendarineko ahizpak eta Oreka TX. Gorka Benitez saxoan, Juantxo Zeberio pianoan, Perkusioa, Enrike Solinis.

UZTAILAK 26, BAIGORRI
Donostiako orfeioa, Et incarnatus Orkestra, Niko Etxart, Xendarineko Ahizpak, Eltzegor, Mikel Urdangarin, Eñaut Elorrieta, Baigorriko gaiteroak. Gorka Benitez saxoan, Juantxo Zeberio pianoan, Perkusioa, baxua.

UZTAILAK 28, OKABE
Euskal Barrokensemble.

UZTAILAK 30, ZARAITZU
Donostiako Orfeioa eta musikariak.

ABUZTUAK 1, HIRU ERREGEEN MAHAIA
Amaierako festa kontzertua, lagun ugarirekin.

Kontzertua

Ainhoa Larrañagak 'Eskuminak' bere aurreneko diskoa aurekeztuko du. **Lazarragan, 19:00**

**Bakarrizketa**

El chef bakarrizketa saioa. Bizitzako miseriei buruz ariko da Gorka Minguez **Lazarragan, 19:00**

AIRE LIBREKO ZINEA**UZTAILAK 2 / 22:30**
'LA MUJER DE LA MONTAÑA'

Benedikt Erlingsson-en filma ikusgai. **Plazako pilotalekuan.**

MUSIKA**UZTAILAK 8 / 19:00**
DAMA BELTZAK

Mugimendu musikal eta sozialaren erreginak izan ziren Ella Fitzgerald, Nina Simone, Roberta Flack, Etta James eta Aretha Franklin handien bertsoiak, Estitxu Pinatxo (ahotsa) eta Asier Santxezen (kitarra) eskutik. **Lazarraga lorategian.**

UZTAILAK 17 / 19:00
AINHOA LARRAÑAGA ETA BANDA

Ainhoa Larrañaga (Hernani, 2000) musikari gazteak 'Eskuminak' izeneko bere aurreneko diskoa aurkeztuko du, jazz, soul eta swing doinuak tartekatuz. Iker Lauroba (kontrabaxua), Garazi Esnaola (pianoa), Amaia Miranda (gitarra) eta Haritz Lauroba (bateria) iango ditu lagun. **Lazarraga lorategian.**

UZTAILAK 19 / 13:00**AGENDA****Dama Beltzak**

Estitxu Pinatxo eta Mikel Santxez

UZTAILAK
8

Estitxu Pinatxo eta Mikel Santxezen proiektua da 'Dama Beltzak' musikaren bidez raultza eta borroka egin zuten dama beltzen omenez

Kontzertua**19:00, Lazarragan (doan)****MUSIKA BANDA**

Iñazio Ibarrodok zuzentzen duen musika bandaren kontzertua. **Lazarraga lorategian.**

UZTAILAK 19 / 19:30
JON BASAGUREN

Izaki Gardenak taldeko abeslari eta gitarra jolea den Jon Basagurenek bakarlarari gisa arituko da country, blues eta pop doinuak tartekatuz. **Ikatz tabernako terrazan.**

UZTAILAK 26 / 19:30
LIV WALLACE

Liv Wallace antzuolarrak estilo ezberdinetako (*pop,*

country, punk rock...) abes-tien bertso akustikoak joko ditu **Ikatz tabernako terrazan.**

UZTAILAK 30 / 22:30
BIZARRO ETA SHARON STONER

Bizarro eta Sharon Stoner talde oñatiarrek beraien azken lanak aurkeztuko dituzte (Streaming bidez udalaren youtube kanalean ikusgai). **Gaztelekuan**

ANTZERKIA**UZTAILAK 5 / 19:00**
BAKARRIZKETA

Gorka Minguezen 'El chef'

bakarrizketa saioa. Sukal-daritzaz hitz egiten hasiko da, baina bere bizitzari eta miseriei buruz jardungo du, umore giroan beti ere. **Gaztelaraz. Lazarraga lorategian.**

BERTSOLARITZA**UZTAILAK 19 / 19:00**
BERTO SAIOA

Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio eta Agin Laburu ariko dira bertsoetan, eta Amaia Agirre gai-jartzaile. **Lazarraga lorategian.**

IKUSKIZUNAK**UZTAILAK 26 / 17:00**
MAGIA IKUSKIZUNA

Eleder mago bizkaitarrak aho bete hortz utziko gaitu bere magia trukoekin. **Lazarraga lorategian.**

ABUZTUAK 30 / 19:00
ZIRKO IKUSKIZUNA

Zirika Zirkus taldearen eskutik 'Zinamaz blai' familientzako ikuskizuna. **Errementari plazan.**

HITZALDIAK**UZTAILAK 2 / 18:00**
EROSI ETXETIK IRTEN GABE

KZguneak antolatutako hitzaldi telematikoa (gaz-

ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezo Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu eta jai egunetan baserriko agia, egurrezko labea egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

telaniaz). **KZGUNEATIC.**

UZTAILAK 7 / 18:00

GAUZEN INTERNETA

KZguneak antolatutako hitzaldi telematikoa (gaztelaniaz). **KZGUNEATIC.**

UZTAILAK 9 / 11:00

HEZIKETA ETA SEGUR-TASUNA INTERNETEN

KZguneak antolatutako hitzaldi telematikoa (gaztelaniaz). **KZGUNEATIC.**

UZTAILAK 14 / 11:00

ZURE DIRU-ZORROA SMARTPHONEAN

KZguneak antolatutako hitzaldi telematikoa (euskaraz). **KZGUNEATIC.**

UZTAILAK 16 / 18:00

BIRUSETATIK BABESTU

KZguneak antolatutako hitzaldi telematikoa (gaztelaniaz). **KZGUNEATIC.**

UZTAILAK 21 / 18:00

EZAGUTU STREAMING PLATAFORMAK

KZguneak antolatutako hitzaldi telematikoa (euskaraz). **KZGUNEATIC.**

UZTAILAK 23 / 11:00

ANDROID SEKRETURIK GABE

KZguneak antolatutako hitzaldi telematikoa (gaztelaniaz). **KZGUNEATIC.**

UZTAILAK 28 / 11:00

EZAGUTU AZKEN GAILU TEKNOLOGIKOAK

KZguneak antolatutako hitzaldi telematikoa (euskaraz). **KZGUNEATIC.**



LIBURUTEGIA Biblioporrak gida

Udako Biblioporrak Gida argitaratu dute eskualdeko, Aramaioko eta Legazpiko udal liburutegiek, adinka sailkatutako liburu, CD eta DVD gomendagarrien zerrendarekin. Liburutegian eta www.oñati.eus webgunean kontsulta daiteke gida, eta liburutegian bertan daude eskuragai bertan gomendatzen diren dokumentuak



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16
Uztailak 2, 10, 11, 12, 16, 20, 22, 24, 25, 26, 28 eta 30. Abuztuak 3, 5, 7, 8, 9, 11 eta 13.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
Uztailak 3, 4, 5, 13 eta 14. Abuztuak 18, 20, 24, 26, 28, 29 eta 30.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
Uztailak 6, 7 eta 15. Abuztuak 17, 19, 21, 22, 23, 25, 27 eta 31.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
Uztailak 8, 9, 17, 18, 19, 21, 23, 27, 29 eta 31. Abuztuak 1, 2, 4, 6, 10, 12, 14, 15 eta 16.

MERKATU TXIKIA

BOE ETXEBITZA SALGAI Babes ofizialeko etxebizitza salgai San Martin auzoan. 90m², 3 logela, 2 komun eta sukalde irekia egongela zabalarekin. Hego orientazioa, oso argitsua eta bista ederrekin. Informazioa: 615 74 18 64..

ETXEBITZA ALOKAGAI Etxebizitza alokatzen da Bidebarrietan; 95m², 3 logela, 2 bainu gela, sukalde ekipatua, egongela, trastelekua eta 16m²-ko terrazazabala. Deitu: 629 373 919.

HAURREN ZAINTZA 23 urteko neska oñatiarra uztailean (abuztu eta iraile-rako ere izan daiteke) haurrak zaintzeko prest. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu edo idatzi telefono zenbaki honetara: 656402707.

GURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



(*) Itten: arrastua, pistia

>> TXISTE KONTARI

Kristobal Kolon

Araozgo eskolan baeguen maisu bat xelebre samarra, neska-mutikuai gogor egitten ostena, eta, egurra be, asko erreparau barik ebaltzen ebena. Hari *Kristobal Kolon* jarri otsain gaitzizena. Egun baten maisu horrek diar egin osten lehenengo aldiz eskolara etorri ziran bi mutikuai:

— *¡Vengan aquí, ustedes!*

Eta lehenenguari:

— *¿Cómo te llamas?*

Mutikua billurrez ...

— *¡Bartolo!*

Zapla! Belarrondokua.

— *¡Se dice Bartolomé!*

Bigarrena hantxe ixixa kaka-fraketan eta..

— *¿Y tú cómo te llamas?*

— *¡Hilariomé!*

Hari be zapla! Belarrondokua.

— *¡Se dice Hilario!*



Eskolako taldea eta maixua ■

>> BILATU ADITZ HONEIN SINONIMUAK:

- | | |
|--------------------|--------------------------------|
| 1. Larrittu | A. Antzeman / Antza hartu |
| 2. Tentau | B. Miazkatu |
| 3. Arlet egon | C. Erabaki, zirt edo zart egin |
| 4. Igarri | D. Azpian hartu |
| 5. Miaztu | E. Estutu |
| 6. Erabagi | F. Preso hartu |
| 7. Mendian egon | G. Zirikatu, xaxatu |
| 8. Mihaztu | H. Gorde, jagon |
| 9. Atxilotu | I. Erne egon |
| 10. Zainpean jarri | J. Bakandu |

Erantzunak: 1e, 2g, 3i, 4a, 5b, 6c, 7d, 8j, 9f, 10h

>> EUSKERAZ EGOGI: 'Hoba (izango) dok/n!'

Erderazko *'mejor será'* edo *'más te vale'* esateko, harridurazko esamolde hau ebaltzen dogu: **hoba (izango) dok/n!** Sarritan entzuten dan ezker, merezi dau goguan hartzeia eta balixaittia. Hona hemen adibide batzuk:

HOBA (IZANGO) DOK/N ... !

Hoba dok/n ez egittia / Hobe dozu ez egittia

Hoba dok/n, sutara ez arrimaittia, erretia gura ezpadok/n!

Hoba dok/n harekin burrukan ez hasteia

Hoba dok/n lan barririk ez hartzeia, lehendik hasittako asko akabo barik dakok/n eta.

Hoba dozue beste bide hori hartzeia, garbixago dago eta.

Hoba dok/n kasu egittia eta ondo portaittia, bestela gorrixak ikusi biharko dittuk/n eta!

Hoba izango da etxe aldera fatia, hemen eztau girorik eta!

Hoba izango dok/n kasu egittia berandu damuketia baiño!

ANTXIÑAKO  FOTOGRAFIXIA

Torreazoko Sanpedrotan

Sanpedruak Zubillagan eta Torreazon ospaketan dira. Sasue batian **Torreazoko** [To] jaixak jente asko karriaiten euen. Bertan baserri eta bestelako etxe gutxitxo egon arren, inguruko auzuetatik etorten ziran urtero Sanpedruetan parte zuzena hartzera, **Txantxilipeztegi** (Madalena) [Tx], **Garibai** [Ga] edota **Goribarreko** [Go] auzotar batzuk batez be; **Zaiñartukuak** [Za] ez hainbeste. Gero, eromerixara-eta, kaletar asko inguraketan zan San Pedroko zelaira. **Aurten**, beste leku gehixenetan letxe, **eztala ospakizun haundirik izango irizten xaku**. Baiña, besterik ezian, 60 urte pasatxo eukiko dauen fotografixa honekin, garai bateko fiesta-girua gogoratu gura izan dotsuegu.

Argazkixa Torreko zubixaren onduan atarata dago, San Pedroko kalejarako sarreran. Konturatuko zarai **ixa protagonista danak gizakumiak dirala**, edade desbardiñetakuak. Baiña **lau emakume be agiri dira**. Zergatik ete? Ba, urte hareittan San Pedroko Torrian, handik oso hurrian, baserrixaren kontran eta erreka ertzian, auzoko tabernia egon zan, oso ezaguna Oñati aldian. Taberna haretan jardun euen lanian Guridi-Egaña familixako emakumiok luzaruan. Horregatik-edo agertuko dira hemen gizon pilliaz inguratuta. Zorionez, ohitturak aldatauz fan dira. Fotografixako beste **personaje garrantzitsu bat soiñujolia** da: **Felix Aranzabal**, Angiozarreko itsu famaua, hamarkada askotan San Pedruetako eromerixak eta beste musikaldi batzuk animaittera etorten zana. Honek be auzuarekin lotura estua eukan, Azkonitza baserriko **Anjeles Ugarterekin** ezkondata eguen-eta. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dira ezagutu dittugunok.

Goixeneko illaran: **Telesforo Urzelai**, Anduagakua [Tx]; **Luis Márquez**, Azkonitzako morroia [To]; **Paulo Garai**, Santuekua [Tx]; **Bittoriano Etxezarreta**, Etxeaundikua [To]; **Jexus Urzelai**, Anduagakua [Tx]; **Zelestino Agirrebengoa**, Maala-etxebarrikua [Tx]; **Juanito Olazarán**, Unaingua [Ga]; **X. X.**; **Enrike Guridi**, Torrekoa [To]; **Alberto Barrena** [?], Munazategikua [To]; **Iñaxio Barrena**, Munazategikua [To]; **Manolo Etxaniz**, Zubillagakua; **Felix Aranzabal** soiñujolia, **Angiozarreko itsua**; **Bixente Etxezarreta**, Etxeaundikua [To]; **Joxe Mari Egaña**, Errotabarrikua [Go].

Hirugarren illaran: **Felix Anduaga**, Etxatxokua [Tx]; **Benigno Madina**, Juliangua [Ga]; **Joxe Ugarte**, Azkonitzakua [To]; **Ixaak Etxezarreta**, Etxeaundikua [To]; **Antonio Olazarán**, Unaingua [Ga]; **Baxilio Egaña**, Dolaetxekua [Ga]; **Migel Etxezarreta**, Etxeaundikua [To]; **Pedro Urzelai**, Anduagakua [Tx]; **Modesto Zilaurren**, Elazarrako morroia [To]; **Joxe Barrena**, Munazategikua [To]; **X. X.**; 27.- **Juanito Urzelai**, Anduagakua [To]; **Bixente Zabarte**; eta **X. X.**

Bigarren illaran, nahasi samar: petrillian jarrirta, **Tomas Txintxurreta**, Berotegira ezkondua [Go]; **Gabino Beitia**, Kastillokua [Ga]; **Euxebi Aldanondo**, Torreko Pedoren andria [To]; **Martiña Egaña**, Torreko ama [To]; **Malen Egaña**, Martiñaren ahizpia; **Maritxu Guridi**, Torrekoa [To]; **Felix Barrena**, Munazategikua [To]; **Xalbador Abaunz**, San Pedroko kalejakua [To]; eta **Esteban Guridi**, Argiñena [Ga].

Lehenengo illaran jarrirta: **Jexus Guridi**, Argiñena [Ga]; **Joakin Aldasoro**, Dolaetxeko morroia [Ga]; **Felix Bolinaga**, Maala-etxebarrikua [Tx]; **Luis Abaunz**, San Pedroko kalejakua [To]; **Pedro Guridi**, Torrekoa [To]; **Joxe Guridi**, Torrekoa [To]; eta **Plaxido Guridi**, aurreko bixen osaba, Torrekoa [To].

Makurtuta: **Juane Anduaga**, Etxatxokua (?) [Tx]; **Julian Anduaga**, Etxatxokua [Tx]; eta **Deogracias Guridi**, Plaxidoren anaia, [To].

Fotografixa Manolo Etxanizen argazki-fondokua da eta bere alaba Maiteren bittartez aillegau xaku. Argibidiak Manolo Egaña, Luis Urzelai, Miren Isasmendi, Maria Jesus Guridi, Beatriz Irizar eta Sorkunde Ugartek samurtu doskue. Milla esker danoiri!



GARA

Gara



guztion artean
GAINDITUKO DUGU

COVID-19

Grupo ULMA, S. Coop.

Garagaltza Auzoa 51, 20560, Oñati (Gipuzkoa) · T 943 25 03 00 · www.ulma.com · grupoulma@ulma.com